

Sorkuntzaren ekosistema

Durango badago sormena eta badaude sortzaileak. Horixe egiaztatu du Durangoko Udalak emandako Sorkuntza Bekak. Atzo, San Agustin kultur gunean, euren proiektuak babesteko udalaren laguntza jaso duten 16 kultur proiektuen bultzatzaileak batu ziren. Orain, urtebeteko epea dute buruan duten egitasmoa gauzatzeko. • 4



Hot Shots Etxano, Zornotzako umeen hockey taldearen lehenengo pausoak

Zornotza | Hot Shots Etxano Durangaldeko hockey talde bakarra da. Etxanoko familia batzuek sorturiko ekimena da eta erantzun ezin hobeia izan du. • 8

Gehigarria

Azaroaren 25a



"Historia bakoitza diferentia izateak egiten du migrazioa unibertsal"

Durango | Xilabako txapela jantzi berritan, Amets Arzallusek Durango bisitatu du. Bizenta Mogel Bibliotekako irakurketa klubeko kideekin batu zen eguaztenean. 'Miñan' liburua ardatz hartu zuen. Ibrahima Baldegaz batera liburua kaleratu zuela urte bi joan diren arren, liburuaren ardatza ez da inondik inora ere iraungi. Liburuaren idazketa prozesuaz eta migrazioaz berba egin du Arzallusek. • 2-3





**Amets
Arzallus Antia**

Bertsolaria

HENDAIA | 1983

“Migratzaileen egoerarekiko kezkak konkrezioa eta lurra hartzen du testigantza harreman sakona duzun batengandik jasotzerakoan”

Amets Arzallus bertsolari lapurtarrak migrazioei buruzko solasaldia eskaini du Durangon, 'Miñan' liburu ardatz hartuta. Bizenta Mogel Bibliotekako irakurketa klubeko kideekin batu da, 'Bideak gurutzatuz' zikloaren barruan bere hausnarketak partekatze

MIGRAZIOA • EKAITZ HERRERA

Xilabako txapela jantzi berri, Zuberoako, Nafarroa Behereko eta Lapurdiko Bertsolari Txapelketa laugarrenez irabazita etorri da Durangora. Baina ez bertsolaritzaz aritzeko; gertutik ezaguturiko migrazio istorioak eta hausnarketak partekatze baina. Amets Arzallusek eta Ibrahima Baldek 'Miñan' liburu idatzi zuten orain urte bi. Bertan, Balderen migrazio istorioa jaso zuten, Gineako Konakry hiri-burutik irten eta Europara ailegatu zen arte. Liburuak mugei buruz eta jaioterria abandonatzera behartuta sentituriko migratzaileen inguruan eragiten du hausnarketa.

Zorionak txapelagaitik! Zer moduz doaz Xilabako biharamunak?

Atzera begiratuta, pozik nago emandako mailarekin eta orokorrean egin genuen saioarekin.

Xilabako finala plaza inportantea da Iparraldeko euskalgintzarentzat eta bertsolaritzarentzat. Indar, arnas eta *txute* bat da, gero bide luzean irauteko. Plaza ederra izan zen, jendeak disfrutatu zuela uste dut. Guk izugarrizko energia jaso genuen jendearengandik, eta uste dut

Migratzaileei buruzko berriak zoritxarreko bukaera bat dagoen aldiro azaldu arren, egunerokoak dira bizitza bati eusteko bidean dituzten injustiziak

aspaldidanik zegoela gisa honetako jai baten parte sentitzeko beharri-zana. Euskaldun lez, bertsozale lez. 'Miñan' liburu aurkeztera etorri zara Durangora. Liburu kaleratu

zenutenetik urte bi joan diren arren, liburuaren ardatza ez da inondik inora iraungi. Xilabako amaierako agurrean ere, aktualitate karga handiko toponimo bi bota zenituen: “Bidasoa” eta “Ziburu”.

Bai. Zoritxarrez, bukaera tragiko bat dagoenean, toponimo horiek dira komunikabideetara agertzen diren gertakizunak, berriak, lekuak eta pertsona konketuak. Baina bukaera tragiko horretara ailegatu barik, eguneroko-eguneroko errealtatea da migratzaileek bidean duten ibili nahi eta ezina. Oztipoak, trabak, sufrimenduak eta diru xahutze izugarriak. Horiek egunerokoak dira. Izan asteburu ala astegun. Zoritxarreko bukaera bat dagoen aldiro azaltzen badira ere, izugarriak dira egunerokoan dauden sufrimendua eta pertsona batek bere bizitzari eusteko bidean dituen injustiziak. Toponimo ho-

riek izebergaren punta dira, baina izugarrizko blokea dago azpian.

Liburu Ibrahima Balde ginearrak eta zuk idatzi zenuten, 2019an. Zelan eza-gutu zenuten elkar?

Garai hartan, Irungo Harrera Sarrera joaten nintzen boluntario lez, tarteka. Orain ere bai. Talde zabala da. Eta han tour txiki bat egiten genuen. Renferen Irungo tren geltokitik abiatu, eta beste bi muga ertzak behatzen genituen: Santiago zubia eta Behobia. Iritsi berria zen inor bato zegoen ikusten genuen. Gero, euren gura hurbiltzen ginen informazioa eskaintzera. Goiz horietako batean, neu nintzen tour txiki hori egiteko ardura zuena. Irungo Renferen geltokian sartu nintzen. Bertan kafetegi txiki bat dago. Eta kanpoaldean, eserleku batzuk. Dozena bat lagun zeuden han. Iritsi berriak. Hurbildu nintzen, eta

Konfiantza hartzea ez da erraza, migratzaile batek, bere bidean, mesfidantza ere behar baitu bere burua babesteko

Ibrahima zen eurretako bat. Han ezagutu genuen elkar. Hurbildu nintzen eta gure boluntario sarea aurkeztu nien. Konfiantza hartzea ez da erraza. Migratzaile batek,

bere bidean, mesfidantza ere behar baitu bere burua babesteko.

Elkar ezagutu zenutenetik zelan sortu zen liburu kaleratzeko ideia?

Egia esan, ez genuen liburu bat idazteko inolako asmorik. Hasiera sinplea izan zen. Asiloa eskatzen zutenek horretarako motiboak aurkeztu behar zizkioten poliziari. Komisarian elkarrizketa bati aurre egin behar izaten diote asiloa eskatzearen motiboak azaltzeko. Eta istorio hori hain da gogorra eta zauritua, bideko tragediez josia, laguntza eskaintzeari ekin geniola. Hau da, elkarrizketak egiten hasi ginen, euren istorioak txosten batean jaso, eta, ondoren, komisiariako galdeketa iritsitakoan euskarri modura baliatu zitzaizten. Horretarako egin nion elkarrizketa Ibrahimari. Hori izan zen abiapuntua. Gero, elkarrizketa gehiago egon zen. Baina hasieran ez zegoen liburu bat egiteko inolako pretentsiorik.

Liburuaren estiloa oso aratza da, garbi-garbia. Esan daiteke kazetariak esku hartze gutxi egin gura izan duela Ibrahima Balderen kontakizunean. Nahita egindako zerbait da?

Nik bilatutakoa baino, Ibrahimak emandakoa da. Bera ezagutu nuen, bere istorioa kontatzen hasi zenean, kontatzeko modu oso berezia zuela sumatu nuen. Ahoz-kotasunaren arrastoak zituen. Berba egiteko modu hautsia eta ederra. Sinplea bezain sakona. Hori deskubritzeaz batera, istorioaren



Ametz Arzallus, Durangoko Bizenta Mogel bibliotekan eskainitako berbaldian.

gogorak inpaktatu ninduen. Ez da lehenengo egunean kontatzen den istorio bat. Konfiantza behar duzu xehetasun batzuetara ailegatzeko. Baina kontatzeko modua hasieratik hauteman dezakezu. Beraz, nik bilatutakoa baino, gehiago da aurkitutakoa. Saiatu naiz hori ahalik eta gardenen eta gordinen errespetatzen. Ez nuen Ibrahimaren eta irakurlearen artean sartu gura, tutore edo zuzentzaile bat bez. Uste dut Ibrahimak nahikoa aduna pasatu duela bidean, bat gehiago edukitzeko.

Saiatu naiz Ibrahimaren kontatzeko modua ahalik eta gardenen errespetatzen

Ibrahima Balderen istorioa unibertsala, esportagarria, izan daiteke gainerako migrazio istorioak kontatzeko?

Migratzaileen pairamen asko

antzekoak izan daitezkeen arren, bakoitzak bere bizipenak dituela uste dut. Dibertsitate handia dago. Eta migratzeko arrazoiekin ere, berdin. Guk uste dugun baino arrazoi eta korapilo gehiago dago. Alde horretatik, Ibrahimarena izan daiteke Europara iritsi nahi ez zuen migratzaile baten istorioa. Horrek diferentzia bat markatzen du. Baina ez da bakarra. Esango nuke istorio bat bera ere ez dela esportagarria. Istorio bakoitza diferente izateak egiten du migrazioa unibertsal.

Ibrahima Balde ezagutu aurreko Amets Arzallus eta Ibrahima Balde ezagutu osteko Amets Arzallus berdinak dira?

Migratzaileekiko kezka banuen aurretik ere. Min hori modu abstraktu batean bizi nuen. Eta horrek guztiak konprezioa eta lurra hartu du istorio hau hain hurbil eta harreman sakona dudan pertsona batengan, bere gorputzean, ikustean. Hedabideetatik jasotzerakoan, kokapen ideologiko argia izan dezakezun arren, teoria eta distantzia batetik hartzen duzu dena. Baina gero, gaiak konprezio, lur eta hurbiltasun gehiago

Azkenaldian dezente gaude elkarrekin. Lagun arteko harremana dugu, konstantea

hartzen duenean, zorrotzago jartzen da zure barneko korapiloa. Zure bizi baldintzei begira, zure konfortari begira ipintzen da. Bihurritu egiten du zure izateko modua. Aberastu egiten zaitu. Eta minberatu egiten zaitu. Motxila hori guztia hartzen duzu soinean, eta aurrean duzunera moldatzen zara. Askok ikasi dudala esango nuke.

Zelan dabil Ibrahima? Mانتentzen duzue harremana?

Elkarrizketa honekin hasi baino hogei minutu lehenago berarekin aritu naiz telefonoz. Oso harreman hurbila dugu, nahiz eta une honetan bera Madril dagoen eta ni Euskal Herrian. Sarri hitz egiten dugu. Joan zen asteburuan, adibidez, Euskal Herrian egon zen. Pandemiaren garaian berba asko egin dugu telefonoz. Azkenaldian dezente gaude elkarrekin. Lagun arteko harremana dugu, konstantea.

Miñan hitzak anaia esan gura du pular hizkuntzan. Zuen bion anaitasun hori ere esportagarria ote da gainerako herriarontzat?

Migratzaileei laguntzeko lanetan ari diren herriarontzat harreman sareek harreman hurbila sortzen dute. Pertsona bat ezagutzen duzunean beste begi batzuekin erantzuten diozu egoerari, naturalago. Hasieran, ez ezagutzeak uzteko bera eragiten du. Baina, gero, gauzak aldatu egiten dira. Ibrahimak, adibidez, gure kulturarekiko, gure hizkuntzarekiko jakin-mina eta sentsibiltatea ditu. Hor hariak eta harremanaren sare oso bat gurutzatzen dira. Distantzia fisiko, kultural eta geografikoak azkar apurtzen dira.

SAN ANDRES JAIK 2021

Azaroak 21, domeka

10:00 Zaldibarko XIX. Mendi bizikleta martxa. Irteera udaletxeko plazan.
11:30 Biketrial erakustaldia Javi Alonsorekin udaletxeko plazan.

Azaroak 26, barikua

19:00 Olazarmendi taldeko Nerea Gomezek eta Olaia Onandiak eta Zaldibarko Arku taldeko Lidia Cañetek jaien hasiera iragartzeko txapligua jaurtiko dute udaletxeko balkoitik. Ondoren buruhandiak egongo dira.
19:00 Pintxo solidarioak eta DJ Josemari Olazarren.

Azaroak 27, zapatua

10:00 Arku jaurtiketa erakustaldia Zaldibarko Arku taldearen eskutik Olazarren.
11:30-13:30 Umeentzako puzgarriak eta jolasak Olazar pilotalekuan.

Azaroak 28, domeka

11:00 Kalejira trikitalariek.
11:00 Zaldibarko XXII. neguko nekazari azoka.

Azaroak 30, martitena

14:00 Jubilatuen bazkaria
18:30 Olazar txapelketako pilota partidak Olazar pilotalekuan.



Zaldibar
Elizateko Udala

Durango Udalak herriko kultur sortzaileen 16 proiektu babesteko ditu

Sor(tzaileen)leku beken irabazleak nortzuk izan diren aurkeztu dute prentsurrekoan; Beken deialdi honek 95.000 euro banatuko ditu kultur arloko hainbat proiektu babesteko



Beka jaso duten sortzaileak Durango udal ordezkariekin San Agustin kultur gunean.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Udak Durango Sor(tzaileen)leku Bekaren irabazleak aurkeztu egin zuen atzo, San Agustin kultur gunean. Deialdira aurkeztu zituzten 39 proiektuetatik epaimahaia zeintzuk aukeratu dituen azaldu zuten. Bekaren deialdiak 95.000 euro banatu ditu arte eszeniko, ikus-entzunezko, musika, literatura eta ilustrazioa, obra plastiko eta grafikoak bultzatzeko.

Sorkuntza eszenikoari dagokionez, Bagara Kolektiboaren *Interakzio Laborategia*, Igor Iglesiasen *Tartzan Tratamenduan*, Cecilia Paganiniaren *Muna*, Maider Lopez-en *Edurnezuriren Hiru Heriotzak* eta Elene Carretoren *Topatuko garen leku horretan* proiektuak babestu dituzte.

Ikus-entzunezkoetan, Ainhoa Olasoren *Hemen bizi da maitasuna* proiektuak jaso du beka.

Konposizio musikalen sorkuntzari dagokionez, Ander Erzillaren *Sustraiak adarrean* eta Egoitz Etxebarriaren *Amantra* proiektuak lagundu zituzte.

Epaimahaia Galder Perez, Ane Abanzabalegi, Miriam Romatet eta Xabier Gantzarain izan dira

Literatura eta ilustrazio lanei dagokionez, Peru Magdalenaren *Dakota Txikiren muki bidaiaria*, Mikel Uribelarrearen *Gorputz txiki batean jaio nintzen* eta Usue Egia-
ren *Ustekabea*, *krak* lagunduko dituzte.

Lan plastiko eta grafikoen sorkuntzaren atalean, Carlos Martinez Bordoyren *Un agujero en el cielo*, June Baonza Pagaldayren *Ama ta asunak*, Ismael Iglesiasen *Begizulo*

eta Jone Erzilla Etxegibelen *EX3* lagunduko dituzte.

Kultur proiektuei dagokionez, Nerea Gaston Taberaren *Barrenkaleko ikuztegiak* lagunduko dute.

Epaimahaia Galder Perez Radio Euskadiko kultur edukien zuzendariak, Ane Abanzabalegi Astarloa Kulturgintzako presidentek, Miriam Romatet Zumaiaiko Udaleko Kultura Saileko zuzendariak eta Xabier Galtzarain idazle eta arte kritikariak osatu dute, eta aurkezturiko proiektuen kalitate handia eta kultur zirkuituan izan dezaketen proiektzioa azpimarratu zituzte.

"Merkataritzan, ostalaritzan eta beste sektore batzuetan egin dugun moduan, kultura sustatzea ezinbestekotzat jo dugu eta hori kultur sortzaileei lagunduta lortzen da", azaldu dute Ima Garrastatxu alkateak eta Julián Ríos alkateordeak aurkezpenean.

Berbarok Hirukoa lehiaketako gala egingo du bariku honetan

Ekitaldia San Agustin kulturgunean izango da, 19:30ean. Lehiakideek Errigorako otzara bat dute jokoan

DURANGO • J.D / E.H.

Galdera-erantzunak, umore ona eta euskara. Berbarok elkartearen Hirukoa osagai horietekin dator berriro ere. Gala Durango San Agustin kulturgunean izango da, bariku honetan, 19:30ean.

Hiruko taldeetan antolatuta, lehiakideek musikari, aktualitateari, kirolari, zein Durangoren historiari loturiko probak gaitzitu beharko dituzte. Talde irabazleak Errigoraren otzara bat irabaziko du.



Berbarok antolatutako aurreko edizioako argazkia.

Durangeren arazo nagusiak: airearen kalitatea, aparkaleku falta eta etxebizitza

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Aztiker ikerketa etxeak azterketa soziologiko bat egin du. Irailaren erdialdetik urriaren hasierara bitartean egin du ikerketa, 18 urtetik gorako 600 durangarri telefonoz zein kalean galderak egin da. Honako hauek dira emaitza nagusiak: inkestaturakoen %13k aparkaleku falta ipini dute arazo nagusi lez. Horren atzetik datoz airearen kutsadurarekiko kezka (inkestaturakoen %8,1), herriko kaleen garbitasun eza (%6), etxebizitzari loturiko arazoak (%4,8) eta ingurumenari loturiko gaiak (%4,7). Horrez gainera, herritarrek udal ordezkarien inguruko iritzia plazaratu dute. Inkestaturakoen erdiak baino gehiagok (%53,1) uste dute udalak badakiela herriko

arazoak zelan konpondu, baina denbora gehiago behar duela. %15ek esan dute udala Durango arazoak konpontzen dabilela, eta beste %12,5 batek adierazi du ez dakiela arazoak zelan konpondu. Ondo baloratutako alderdiak hauetxe dira, hurrenez hurren: EH Bildu, Herriaren Eskubidea, EAJ eta PSE-EE. Zerrendaburu kasuan ere, berdin. Durangarrek ondo baloratzen dituzten politikariak Ima Garrastatxu (7,1), Julián Ríos (6,8), Mireia Elkororibe (5,7) eta Jessica Ruiz (5,6) dira.

Udal iturriek adierazi duteenez, inkesta honek durangeren "lehentasunak ezagutzeko" balioko du, "ondo dauden gaitetan sakontzeko, eta hobetu beharrekoak hobetzeko".

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko azaroaren 19a
20. urtea - 871. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

JAEDen stand solidarioa zabalik dago martitzenetik, Andra Mariko elizpean, iaz baino 5.000 txartel gehiagogaz

Iaz lez, aurten ere txartel guztiak saltzea itxaroten dute urtarrilaren 6an izango den zozketaren aurretik. Horrez gainera, JAEDeko kideek elkartera batzeko deia egin diete herritarrei, urterik urtera boluntario eta bazkide gutxiago dituztelako



Martitzenean standa zabaldu bezain laster saldu zituzten lehenengo txartelak.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

JAEDen stand solidarioa zabalik dago martitzen arratsaldetik, Andra Mariko elizpean. Aurten, 65.000 txartel atera dituzte -1,5 eurotan bakoitza-, iaz baino 5.000 gehiago. Iaz, txartel guztiak saldu zituzten.

50 sari banatuko dituzte. Urtero lez, autoa izango da sari nagusia: aurten, Renault Clio bat. Lagun birenzako astebeteko bidaia Kanaria uharteetara, hiru telebista... dira beste sari batzuk. Zozketa urtarrilaren 6an izango da.

Laguntzak handitu dituzte

Standa zabaltzeko ekitaldian, bestelako hainbat datu ere eman zuten JAEDeko kideek. 2020an 89 familiari lagundu zieten diruz, 126.964 eurogaz. Horrez gainera, pobrezia

energetikoan bizi ziren beste 56 familiari lagundu zieten, 9.485 eurogaz. JAEDen, 2016tik dabilta pobrezia energetikoan daudenei laguntzen. Aurten argindarraren prezioak gora egin duenez, laguntza jasotzeko epea luzatu eta arlo horretako aurrekontua handitu egin dute. Beste hainbeste egingo dute alokairuen laguntzagaz. "Orain arte, %50era arte laguntzen genuen, eta, orain, %100era igoko dugu beharrezana dutenen kasuetan", azaldu zuen Susana Lorenzo JAEDeko kideak. Hori posible izango da, besteak beste, Durangoko Udaletik jasotzen duten laguntza hazi egin delako; 91.117 eurotik 110.000 euro-ra, hain zuzen ere. Iurretako Udalak 9.000 eurogaz laguntzen du.

Errelebo falta

JAEDen bazkide kopuruak behera egin du azken urtean. Gaur egun, 120 dituzte. Horrez gainera, boluntario eskasia ere badute. "Laguntza behar dugu", esan zuen Lorenzok, eta elkartea ezagutzera joateko gonbita egin zien herritarrei.

Gregorio Vicario euskal preso durangarra ospitalera eraman dutela jakinarazi du Etxerategi

Bere osasun egoera dela-eta neurriak hartzea eskatu du Sarek

DURANGO • E.H./A.B.

Etxerategi jakinarazi duenez, Gregorio Vicario euskal preso durangarra Burgosko espetxetik Leongo ospitalera eraman dute, "bypass koronario" bat ipini eta ebakuntza egiteko. Etxerategi kritikatu duenez, "espetxeko egoera txarrak, duen adinari gehituta, Durangoko presoaren osasuna apurka-apurka hondatzea ekarri du". Hori dela-eta, espetxe-administrazioari eskatu diote "berehalako irtenbide humanitarioak" hartu ditzan, Vicario "espetxetik ateratzeko edo espetxeratze arindua egiteko". Gaixotasun larria duten gaineko 19 euskal presoek ezartzen

zaizkien "neurri berak" eskatu ditu Etxerategi Vicarioarentzat.

Durango Sarek ere eskaera hori egin du. Sarearen berbetan, "preso durangarrak denbora luzea darama osasun arazoekin. 2020ko maiatzetik, bere gaitzagaz loturiko zenbait pasarte kaltegarri izan ditu. Azkena, joan den azaroaren 3an. Kateterismo bat egin eta stent bat ipini zioten ospitalean, hedadura handiko iskemia larria diagnostikatu eta gero", azaldu du plataformak.

Eguen iluntzean, Durangoko hainbat herritar Andra Mariko elizpean mobilizatu zen, Sareren deialdiari erantzunez.

Saharako gatazka eta Siriako gerra, Río de Oro antolatutako zinema jaialdian

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Río de Oro Gobernuz Kanpoko Erakundeak, Durangoko Udalaren laguntzagaz, Fokuan izeneko zinema jaialdia antolatu du. Durangoko Zugaza zineman eskainiko diren hiru film edo dokumentalen bitartez, munduko hainbat tokitako gatazken eta errefuxiatuen inguruan sentsibilizatzea gura dute. Saharako gatazkak pisu berezia izango du jaialdian, baina beste errealitate batzuk ere landuko dituzte, hala nola Siriako gerraren ondorioak edo haur errefuxiatuen egoera. Film bakoitzak bere eguna izango du: azaroak 25, abenduak 9 eta abenduak 16. Emanaldiak 19:00etan hasiko dira. Sarrerak doakoak izango dira.

Argazki zaharrak batzeko bigarren deialdia Garain

Azaro amaieran egingo dute bilketa, udaletxean. Argazkiez gainera, lekukotasunak jaso gura dituzte

GARAI • EKAITZ HERRERA

Gerediaga elkarteak eta Garaiko Udalak bigarren ekitaldi bat egingo dute antzinako bizimodua erakusten duten argazkiak jasotzeko. Bilketa egun bitan egingo dute: barikuan, azaroak 26, 17:00etatik 19:30era; eta domekan, azaroak

28, 11:00etatik 14:30era. Bilketa udaletxean izango da. Erretratuak jasotzetik aparte, antolatzaileek lekukotasunak ere jaso gura dituzte. Jasoriko argazkiak digitalizatu egingo dituzte eta parte hartzaile bakoitzak kopia digitala jasoko du.



Garaiko hainbat argazki zahar.

BETI ZUREKIN

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua. **Salbuespenik gabe.**



bertako
igogailuak | ascensores
www.bertako.eus



ZULORA JAUSITAKO
OBJEKTUAK
BERRESKURATZEA

HARRAPATZE
EGOERAK

IGOGAILUKO
ZARATAK

365/24/7

ARABA
945 712 822
GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935
NAFARROA
848 870 917

Eskualdeko adin txikikoek eragindako gertakarien aurrean neurriak hartu dituela adierazi du Berrizko Udalak

Durungaldeko adin txikiko taldeek herrian gertakari gatazkatsuak eragin dituztela esan dute



Berrizko udaletxearen argazkia.

BERRIZ • AITZIBER BASAURI

Berrizko Udalak kezkatuta agertu da "Durungaldeko adin txikiko taldeek herrian eragindako gertakari gatazkatsuen eta gizalegearen aurkako jokabideen" aurrean. Herrian "kezka" eragin duten egoera horren aurrean neurriak hartu direla jakinarazi die udal arduradunek herritarrei.

Batetik, udalak adierazi du udaltzainen presentzia areagotu egingo dela herrian, datozen asteburuetan batez ere. "Ertzaintzagaz etengabeko komunikazio

kanal bat mantendu da prebentzio lana egiteko", nabarmendu dute. Eta gogoratu dute portaera

Gizarte zerbitzuekin eta ikastetxeekin koordinatuta lanean dabilela dio udalak

horiek Ertzaintzaren aplikazioaren bitartez edo 112 Larrialdi Zerbitzuen telefono zenbakiaren bitartez jakinaraztea gomendatzen dela.

Bestetik, Berrizko Udalak jakinarazi du gizarte zerbitzuekin eta ikastetxeekin koordinatuta lanean dabilela, "prebentziotik abiatuta jarduteko", argitu dutenez. Batez ere, herriko eskoletan, familian eta aisialdian eragin gura dutela adierazi dute: "Horrelako jokabideak prebenitzea da helburua, sentsibilizaziotik. Baita jokabide horiek detektatzea eta esku hartzea ere, herrian bizikidetzeta eta segurtasuna hobetu eta irtenbide egokiak bilatu ahal izateko".

Datozen asteetan hasiko dira BI-3336ko lanak Atxondon

Atxondoko Udalak 716.650 eurotan esleitu ditu Elorrio eta Abadiño lotzen dituen errepideko lanak

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Astelehen goizean egindako osoko bilkuran, Atxondoko Udalak BI-3336 errepidea —Elorrio eta Abadiño lotzen dituen— konpontzeko lanak esleitu zituen. Lanak datozen asteetan hasiko dira eta Fhimasa enpresak egingo ditu. Lanek 716.650 euroko kostua izango dute. Atxondoko Udaletik jakinarazi dutenez, bideko lanak Bizkaiko Foru Aldundiak ordainduko ditu, eta datorren urteko uda baino lehenago amaituta egoitea aurreikusten dute.

Espaloiak eta pasabide goratuak egingo dituzte, eta oinezkoentzat bidea atseginagoa izatea da helburua. Lan hauek Cemosa enpresako sarbidean hasiko dituzte eta Bentaberri baserriko sarbidean amaituko dira.

"Aste askotako administrazio-prozesuen ondoren, azkenean esleitu dira obrak, eta hainbeste urte borrokan eman eta gero, hile gutxi barru eraikiko dute biribilgunea. Horrek sarbide seguruagoak emango dizkio udalerritari", aitortu du Xabier Azkarate alkateak.



Konponduko duten bidearen zatia.

'Elorrixon Dendarik Denda' kanpainaren barruan 1.148 bonu atera dituzte herriko komertzioetan erabiltzeko

Bonuak azaroaren 22tik 30era egongo dira eskuragai, eta abenduaren 1etik 31ra bitartean erabili ahal izango dira

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak eta Elorrioko Merkatarik Elkarrekin Elorrixon Dendarik Denda kanpaina martxan ipiniko dute beste urte batez. Kanpainagaz bat egiten duten 37 saltokiei laguntzea da helburua, besteak beste.

Bonuak azaroaren 22tik 30era bitartean eskuratu ahal izango dira, Turismo Bulegoan, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, eta abenduaren 1etik 31ra bitartean erabili ahal izango dira.

Elorrioko Udaletik jakinarazi dutenez, udaberriko kanpainan legez oraingoan ere tiket bakoitzak 30 euroko balioa izango du eta pertsona bakoitzak bonu bi erosi ahal izango ditu gehienez,

bakoitza 20 euro ordainduta. Horrela, ekimenean parte hartzen duten 18 urtetik gorako herritarrek 10 euro aurreztuko dute bonu bakoitzeko.

Bonuak 30 euroko balioa izango du eta pertsona bakoitzak bi eskuratu ahal izango ditu gehienez

Bestalde, bonuak erosteko unean, kanpainara atxikitako saltokien artean aukeratu beharko dela azaldu dute udaletik, hau da, bonuak nominalak direla. Horrela, saltoki guztiek trukatzeko kopuru bera izatea bermatuko dute.



Elorrioko kale bateko argazkia.

Elorrixoko Kale Katuak elkarteak hainbat katu pozoituta hil dela salatu du

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrixoko Kale Katuak elkarteak azken asteetan gertaturiko ezbehar bat salatu du sare sozialetan. Ohar baten bitartez jakinarazi dutenez, Elorrioko elkarteak katuak elikatzeke duen gune batean hainbat katu pozoituta hil da. "Ezbehar hau salatzen dugu eta ez da lehenengo aldia horrelako gertakari bat gertatu eta salatzen duguna", adierazi dute elkarte-kideek.

Bestalde, katuak pozoituta hiltzea "delitu bat" dela salatu dute. "Gertakari hau delitu bat da eta honen aurrean erantzukizunak hartzea espero dugu", amaitu dute Elorrixoko Kale Katuak elkarte-kideek.



Ostalaritza gida

**Durango**



OIERDI
Herriko gudarien 8, DURANGO
Tel.: 946 129 824
Gosari eta pintxo aukera haundia giro ezin hobean.

**Iurreta**



GAUARGI
Dantzari Etxetaldea, IURRETA
Tel.: 944 356 674
·Gosariak, pintxoak, molleteteak, rabak, errazioak eta askotariko tortilak enkarguz,...

**Durango**




AI AMA
Joxe Miel barandiaran 2, behea, DURANGO
Tel.: 946 232 240
Gosaldu bazkaldu zein afaltzeko aukera. Gozo eta osasuntsu gainera!

**Abadiño**



ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790
Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.

**Durango**



MIKELDI TABERNA
Kalebarria, 7 - DURANGO
Tel.: 944 073 988
Gosari eta pintxo aukera haundia giro ezin hobean.



Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!





Unai Martinez, Maider Ituarte eta Tom Jeffrey Seiler.

Hot Shots Etxano: Zornotzako umeei hockeya eskaintzeko ametsa, egia bihurtuta

Hot Shots Etxano Durangaldeko hockey talde bakarra da. Etxanoko familia batzuek sortu zuten orain hiru urte

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Umeak irristailuekin batetik bestera. Oihuak, barreak. Entrenatzailearen txistu hotsa orain. Seme-alabei laguntzera joandako gurasoen urduritasuna gero. Baina, batez ere, ilusioa. Martitzen eta eguen arratsaldeetan Zornotzako Andra Mari ikastolako frontoira doanak horixe aurkituko du: haurren ilusioa. Izan ere, Zornotzako 28 bat ume kirol talde berri batean jokatzen hasi dira, Hot Shots Etxano taldean. Zertan eta hockeyan, Durangaldeko hockey talde bakarrean.

"Etxanon bizi garen hiru familia bertako frontoira joaten hasi ginen stick, puck eta abarrekin"

Guztia ulertzeko, hiru urte atzera egin behar da. Eta Etxanora igo behar da. Maider Ituarte hockey taldeko presidentea han kokatu du taldearen hasiera: "Etxanon bizi garen hiru familia bertako frontoira joaten hasi ginen, patinatzeraz. Umeekin joaten ginen. Kasualitatez, familia horietako aita biak, Tom Jeffrey Seiler-ek eta Unai Martínezek, izotz hockeyan jokatzen dute Gasteizko beteranoen klubean. Etxanoko frontoira irristailuak eramaten hasi ginen, stick-ak, puck-ak... eta astiro-astiro hockeyan jokatzen hasi ginen gure seme-alabekin".

Orain hiru urte ia kasualitatez sorturiko proiektu hura sendotuz joan da. Zornotzako umeek eta gurasoek interesa agertu dute. Jendea proiektura batu da eta gaur egun udalerri osoko umeek parte hartzen dute. Ituarteren berbetan, proiektua egia bihurtu.

tzea "Etxanoko ametsa" izan da.

Aurtengo nobedadea da taldeak izaera ofiziala hartu duela. Orain arte lagun arteko egitasmoa izan dena klub modura hasi da funtzionatzen. 6tik 12 urtera bitarteko umeak dituzte taldean,

"Urtarriletik aurrera, EAEko taldeen kontra jokatuko dugu, Eskola Kirolaren liga berrian"

Zornotzako ikastetxe guztietatik etorritakoak. Eta beste klub batzuen aurkako lehia hasiko dute laster. Halantxik azaldu du taldeko entrenatzaileetako batek, Unai Martinezek: "Euskal Herrian, inline modalitateko hockey talde dezente dago. Badira federatutako taldeak ere. Guk, dena dela, Eskola Kirolari dagokion arloan jokatzen dugu, eta liga berria da. Urtarrilean ekingo dio ibilbideari. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako taldeak batuko gara", aurreratu du.

Oraingoz ume gehiago hartu ezin dituztela-eta, kluba prestatu gura dute ume gehiago hartzeko

Orain, Zornotzan hockey zaleatasuna errotuta, Hot Shots Etxanok Eskola Kirolari dagokion eskaintza zabaltzen jarraituko du. Oraingoz ume gehiago hartu ezin dituztela-eta, kluba prestatu gura dute etorkizunean ume gehiago hartzeko. ANBOToren web orrian, taldekideekin egingako bideo erreportajea dago ikusgai.

VI. Lasterketa Familiarra egingo dute domekan lurretan

IURRETA • AITZIBER BASAURI

VI. Lasterketa Familiarra egingo dute domekan lurretan. Elkartasuna eta kirola sustatzea helburu hartuta, adinari egokituriko bost zirkuitu egongo dira. Korrikalariak 11:00etan dute hitzordua, Askondon.

Korrikaldia amaituta, herri kirolak egiteko aukera ere egongo da, HEKI elkartearen eskutik. Bestalde, 12:45ean emakumeen arte martzialen erakustaldia egongo da. Eta La Otra Mirada elkarteak antolatuta, paella solidarioa eskainiko dute, hiru euroan. Baturiko dirua Senegal-en amatasunean espezializaturiko anbulatorioa hobetzeko proiektuan erabiliko dute. Errifa solidarioaren zozketa ere egingo du La Otra Miradak.

lurretan, 97.000 euro erabiliko dituzte Fausteko ur hornidura sarea hobetzeko

IURRETA • AITZIBER BASAURI

97.000 euroko aurrekontuagaz, lurretako Udalak lizitaziora atera du Fausteko ur hornidura hobetzeko obra. Urtea amaitu baino lehenago hasi gura dituzte lanak, eta hiru hileko epean amaitu.

75 mm-ko diametroa duten hodi berri bi instalatuta, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren proiektuari eskerrak kontsumorako ur hornidura sarea hobetuko da. Hodi bi horiek Fauste auzoko BI-3332 errepidea igarota dagoen sare orokorragaz egongo dira lotuta, galtzada-pasabide biren bitartez. Hoditeriak 600 metro lineal ditu eta zortzi etxebizitza eta nekazaritza-ustiapeni emango die zerbitzua. Sare berria diseinatzerakoan, erabilera publikoko lursail eta bideak erabili dira.



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarría

Dakizuenek, betidanik izan gara adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RP5: 145-13

DIBA
K O O P E R A T I B A

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92



Otxandio bizi, iraunkor, inklusibo eta euskalduna lantzea da 2030era arteko ibilbide orriko zutarria

Egungo hamarkadako erronkak identifikatu eta ibilbide orri bat proposatu dute, herri gobernantzaren bitartez aurrera eraman gura dutena

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO
Otxandioko Udalak parte hartze prozesu bat garatu du herritarrekin, komertzioekin eta herriko askotariko eragileekin 2020ko hamarkadari begira Otxandiok aurretik dituen erronkak zehazteko. Prozesu horretan jasorikoak oinarri hartuta, ibilbide orri bat diseinatu eta azaroaren hasierako herri batzar batean aurkeztu zituzten.

Proposamen irekia da, herritarren inplikazioagaz eta herri gobernantzaren bitartez landu eta aurrera eraman gura dutena.

Batzar irekian, 2030era begira bost zutarri landuko dituen proposamena mahaigaineratu zuten: herri bizia, iraunkorra, inklusiboa, euskalduna eta memoria landuko duena dira bost zutarriak.

Herri biziagaz herriko elkarte-gintza, komertzioa eta kale bizitza sustatzen dituen esan gura dute. Kultur eta kirol elkarteei gaur egungo eskakizunetara egokitzen laguntzea eta tokiko merkataritzaren garrantzia nabarmentzea dira erronka batzuk, azaldu zuten.

Herri iraunkorrerako gakoa inguru naturala babestea eta alternatiba jasangarriak bilatzea da. Otxandiok kanpoko energia iturriekiko duen menpekotasuna murrizteko, kooperatiba egitura



Herriko elkartegintza, komertzioa eta kale bizitza sustatzea da lan ildoetako bat.

izango duen energia komunitatea bat sortzea da aukera bat. Beste lan ildo bat hondakinen gaikako bilketari bultzada berri bat ema-

Herri iraunkorrerako gakoa inguru naturala babestea eta alternatiba jasangarriak bilatzea da

tea da. Herri inklusibo baten lanetan, jatorri eta kultura askotariko herritarrak herri nortasunaren eraikuntza prozesuan parte izatea da lan ildoetariko bat. Pertsona nagusien beharizanei ere erantzun gura diete, zahartzaro duina izan dezaten.

Euskararen erabilera areagotzea izango da beste helburuetariko

bat. Ikerketa baten arabera, egun gaztelania eta euskara %50ean erabiltzen dira eguneroko hartu-emanetan eta euskararen erabilera handitzeko lan egitea da helburua. Azkenik, bere iragana ezagutu, transmititu eta kontuan hartzen dituen Otxandio batean sakontzea da beste zutarri bat, askotariko ekintzen bitartez.

Izurtzako Udaleko proiektuak azaldu eta herritarren ekarpenak jaso dituzte

IZURTZA • J.D.
Eguaztenean, Tokian Tokiko Agenda 21aren barruko herri batzarra egin zuten Izurtzan, erabilera anitzeko lokalean. Bertan, besteak beste, datorren urtera begira udalak herrirako dituen asmoak azaldu zituzten; zer proiektu dituzten esku artean eta zelan egin gura dituzten. Ondoren, herritarren galderei erantzun zieten eta haien ekarpenak jaso zituzten. Eguaztenean jasoriko iritziak udalean baloratu, eta ekarpenak

Jasoriko ekarpenak aintzat hartuko dituzte 2022ko aurrekontuak lantzerako orduan

egingarriak direla iritziz gero, datorren urteko aurrekontuetan tokia egingo diete. 2022ra begirako aurrekontuak aurtengo abenduan onartzeko asmoa dutela azaldu dute udaletik.

Bengouria familiako idi pareak irabazi du Mallabiko idi proba sariketa

MALLABIA • J.D.
Joan zen asteburuan, hiru egunetako beste hainbeste jaialditan banatuta, Mallabiko 32. Idi-Proba Saria lehiatu zuten. Bederatzi idi pare ibili ziren lanean Mallabiko probalekuan. Lehia estu baten ondoren, Bengouria

Idi pare irabazleak 36 untzetik gora egin zituen; jabeek 1.500 euroko saria irabazi zuten

familiako idi pareak egin zuen lanik onena. Honako hau bere lana: 36 untze, 4 metro eta 60 zentimetro. Txapeldunen manta eta garaikurra ez ezik, 1.500 euroko saria irabazi zuten. Garcia familia geratu zen bigarren; metro bi eskas gutxiago egin zituen euren idi pareak. 1.300 euroko diru saria eraman zuten etxera. Azkenik, Biorenbarria familiako idi pare geratu zen hirugarren. 1.200 euro eskuratu zituzten.



Piboteak ipini dituzte bideko alde bietan autoak pasatu ez daitezen.

Kultur etxetik Andra Mari kalerako bide zatia oinezkoentzat egokitu dute

Joan zen asteko barikuan egin zituzten lanak

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO
Joan zen asteko barikuan, Mañariko kultur etxe ingurutik Andra Mari kalera doan bide zatia oinezkoentzat bihurtzeko lanak egin zituzten. Besteak beste, bidea egoera berrira egokitzeko, pibo-

Errekondo zabaldu zenetik jende gehiago dabil handik eta segurtasuna handitu gura dute

teak ipini zituzten kalearen alde banatan, handik auto gehiagorik pasatu ez dadin. Orain aste batzuk, Errekondo taberna berriro

zabaldu zuten eta inguru hori oinezkoentzako gun e bihurtuta, segurtasuna handitu gura dute. "Mugimendua egoten da han inguruan, eta taberna inguruan herritarrentzat nahiz bisitarien-tzak gun e seguru bat sortzea da helburua", azaldu du Ainara Otxotorena alkateak. Aste honetan hilabete bete da Errekondo berriro herritarrentzat zabaldu zutenetik.

Piboteak ipinita ere, asteburuan kotxe bat baino gehiago pasatu omen da handik, udal arduradunen esanetan. Horregaitik, piboteez gainera gun e hori gehiago babesteko asmoa dutela jakinarazi dute.

Zaldibartarrek 300 oinetako paretik gora batu dute Greziako errefuxiatuentzat

Elkartasun kanpaina Gipuzkoako Zaporeak proiektuagaz batera egin dute. Joan zen asteburuan egin zuten bilketa, udaletxean. Herriko hainbat boluntario aritu zen bilketan

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA
Zaldibartarrek elkartasun kanpaina emankorra egin dute: 300 oinetako pare baino gehiago batu dute Greziako errefuxiatuen kanpalekuetara bidaltzeko. Ibai Iraeta zaldibartarra izan da egitasmoa koordinatzen aritu den kideetarikoa bat. Azaldu duenez,

joan zen asteburuan egin zuten kanpaina, "udaletxeko azpiko solairuan barikua arratsaldean eta zapatu goizean oinetakoak batuta". Elkartasun kanpaina Gipuzkoako Zaporeak proiektuagaz batera egin dute. "Orain arte, elikagaiei loturiko kanpainak antolatuta izan dituzte, baina, aurt

ten, neguko oinetakoak batzea eskatu dute. Eurekin hartu-emanetan ipini eta boluntario talde txiki bat sortu genuen", azaldu du Iraetak. Baturiko oinetakoekin 15 bat kaxa bete dituzte. Orain, Zaporeak taldekoak kaxen bila etortzea eta oinetakoak Greziara bidaltzea baino ez da falta.



Oinetakoak udaletxeko beheko solairuan batu zituzten.

Abadiñoko EH Bilduk Txinurrisolo kalearen inguruak hobetzea proposatu du

Koalizio subiranistaren berbetan, Txinurrisolo kalearen bueltako bizilagunek arazoak dituzte aparkatzeko

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO
Abadiñoko EH Bilduk adierazi du Txinurrisolo kalearen bueltako bizilagunek hiru "gabezia" identifikatu dituztela: "Zonaldean aparkatzeko arazoak daudela eta aparkaleku handian argitasun falta dagoela esan digute; kalea urbanizatzerakoan, errepidea

eta espaloiak maila berean ipini beharko liritekeela. Horrez gainera, trafikoaren sarrera eta aparkalekuak kontrolatu egin beharko liritekeela". Urte bi pasatu dira Txinurrisolo trafikorako itxi zutenetik; egoiliarrentzat eta zalamalanetarako baino ez dago zabalik.



Txinurrisolo kalea.

HEMENDIK

ELORRIORA

BETI GERTU!

Beginiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, beheka 48215, Iurreta
construcciones@zarateyelexpe.com

Eusko Jaurlaritzak COVID-19 ziurtagiria ezarri gura du ostalaritzan

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiari pasaporteia ipintzea eskatuko dio



Durango Andra Mari ingurua.

DURANGALDEA • E.H.

Gotzone Sagardui Osasun sailburuak agerraldia egin zuen martitzean, koronabirusari aurre egiteko neurri berriak iragartzeko. "Ez goaz ondo", adierazi zuen Sagardui. "Joerak adierazten du pandemia hazkunde abiadura handiagaz ari dela gora egiten", gaineratu zuen. Aitortu zuen ospitaleetako presioa ez dela "oraindino" lehenagoko olatuetan bezainbestekoa, baina egoerak okerrera egin baino lehenago "neurriak hartzea" erabaki du Jaurlaritzak.

Batetik, "prebentzio neurriak bermatu ezin diren jardura eta ekitaldiak" etengo dituzte; bestetik, "Euskal Autonomia Erkidegoak" gaueko aisialdiari loturiko establezimenduetan eta zenbait jatetxetan COVID ziurtagiria ipintzea ahalbidetzea eskatuko dio asteon Auzitegi Nagusiari.

Bestalde, udal agintariek esku hartu ezin duten ekitaldi jendetsuak atzeratu edo bertan behera utziko dituzte; jende pilaketak egotea aurreikusi daitekeen egoeretan, espazioa handitzea eskatuko dute, besteak beste. Horrez gainera, elikagaiak eta edariak ostalaritzan baino ezingo dira saldu. Bestelako ekitaldietan ura baino ezingo da zerbitzatu.

Politikan

Jesica Ruiz
PSE-EE



Emisio baxuko gunea (EBG)

Irailean jarri zen martxan emisio baxuko gunea berria. Gune horretan San Agustinalde eta Jose Miel Barandiaran kaleak sartzen dira, eta horrek suposatzen du asteburuetan hainbat aparleku desagertzea.

Horrek kexa ugari eragin ditu Alde Zaharreko bizilagunen aldetik. Kontuan izan behar dugu Alde Zaharreko etxebizitza gehienek ez dutela garajerik. Probaldian kexak areagotu ziren, eta udalak neurriak hartu behar izan zituen. Neurri horiek honakoak izan ziren: kaltetutako bizilagunek anbulatorio zaharraren ondoko aparkaleku txikian aparkatu ahal izatea eta Galtzaretan kalean aparkatu ahal izatea. Edozelan ere, nork kontrolatuko du aparkatutako autoak bertakoak diren ala ez? Bada, lan hori udaltzaingoei esleitu zaie. Argi dago udaltzainak ezin direla horren arduradun izan, beste zeregin eta eskaera asko baitituzte betetzeko.

Kontuan izan behar dugu Alde Zaharreko etxebizitza gehienek ez dutela garajerik

Argi daukagu udalerri guztietan emisio baxuko eremuak handitzea izan behar dela joera, baina, horrelako erabaki bat hartzen denean, argi izan behar da zeintzuk diren helburuak, datu zehatzekin. Orain arte arazoak baino ez ditu sortu kontu horrek. Izan ere, ziurtatu diezagukete, datuekin, autoek aparkalekua aurkitzeko ematen dituzten buelta guztiekin ez garela ari emisio gehiago sortzen?

Horrelako urrats bat ematen denean, lehenagotik aztertu behar dira ondo alderdi guztiak.

Durangaldea asteon

957 zenbakiak irabazi du Durangaldeko Elkartasun Biltegiko zozketa

Durangaldea | Durangaldeko Elkartasun Biltegiko zozketak badu irabazlea. 957 zenbakiak izango du Durangoko Iruko jatetxean otordu batez gozatzeko aukera. Irabazlea agertuko ez balitz zenbaki hauek izango lirateke ordezkioak: lehenengoa 378 eta bigarrena 678. Horrez gainera, antolatzaileek eskerrak eman dizkiete zozketan parte hartu duten guztiei.

AHTaren aurkako aste aktiboa antolatu dute Durangaldeko zenbait herritan

Durangaldea | Azaroaren 22tik 28ra bitartean, AHTaren aurkako aste aktiboa egingo dute Durangaldean. Hori horrela, aste horretan zehar eskualdeko hainbat herritan *Abiadura Handiko Txikizioa* dokumentala eskainiko dute, besteak beste. Bestalde, azaroaren 27an *Durangaldea tinko!* AHTaren aurkako martxa egingo dute Elorriotik Durangora.

'Euskara, mundu bat zugandik hurbil' tailerrean parte hartzeko deia, Atxondon

Atxondo | Atxondoko Udalak azaroaren 24an 18:30ean udal-txetan egingo den 'Euskara, mundu bat zugandik hurbil' erdal-dunentzako tailerragaz bat egitera gonbidatu ditu herritarrek. UEMAk eta udalak antolatutako tailerra da, doakoa, eta ordu biko iraupena izango du. Derrigorrezkoa izango da Atxondoko udal-txetan aurrez izena ematea.

Iritzia

ASTEKARIA@ANBOTO.ORG • ASTEARTEA 17:00AK ARTEKO EPEA

Izurtzako semaforoei buruz

Izurtzan pozik bizitzeak ez dirudi oso zaila. Durangotik gertu, lanera edo erosketak egitera oinez zein bizikletaz erraz egin daiteke. Bestalde, erreka uda partean mundiala da eta udazkenean onddotan joateko ere aukera badago. Zoritxarrez, dena ez da hain polita. Errepideak sortzen dituen arazoak hor daude, esate baterako, zarata eta arriskua. Semaforo berrien aurretik taberna inguruan ezin zen ondokoak esaten zuena entzun, eta etxetik urteteak ere askotan beldurra ematen zuen. Argi dago zein den arazoa eta ez dira semaforoak. Denok dakigu herri bat zeharkatzerakoan 50km/h-ko abiadura muga hori errespetatu behar dugula (Bilbon 30km/h) eta ez da egon modurik hori lortzeko semaforoak jartzea baino. Herritarren urteetako eskarien ostean, gaian eskumena duten administrazioek eskaini eta onartu duten neurri bakarra izan da semaforoena. Ulertzekoa da errepidearen erabiltzaile batzuek semaforoen neurri honekin pozik ez egotea. Baina neurri hau ez da beraieranga pentsatuta ezarri, herritarren segurtasuna eta ongizatea eduki da kontuan bereziki. Beraz, Izurtza zeharkatzen duen errepidean zoazenean, pentsatu inguruan herritarrek bizi garela eta guk ere eskubidea dugula herrian bizi eta gozatzeko. Zure ibilgailuarekin Izurtzan sartzen zarenean, altxa oina azeleragailutik, baliteke semafororen bat gorri aurkitzea. Izan pazientzia eta enpatia apur bat eta, batez ere, gogoratu gutaz. Bihotzez eskertuko dizugu.

LOREA MUÑOZ
Izurtzako alkatea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9. - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Bulegorako
zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografía

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA



Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com

Azaroaren 25a



***Indarkeria
Matxistaren
Aurkako
Nazioarteko
Eguna***



“Emakumeok eskubideak lortu ahala, gure aurkako erreakzioa bortitzagoa izan da”

Maria Gorosari González (Durango, 1978) Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak 'En contra de la banalización del feminismo' liburuak kaleratu berri du

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Emakumeen aurkako indarkeriagaz loturiko albisteen bitartez, Maria Gorosarrik hedabideek sortzen duten errelatoa aztertu du kaleratu berri duen 'En contra de la banalización del feminismo' liburuan. Horretarako, hedabide batzuetan erabiltzen diren mekanismoak aztertu ditu. Kontzeptu bi nabarmentzen ditu: "Ustezkokeriak" eta 'himpathy'.

Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan hedabideek sortzen duten errelato mediatikoa landu duzu zure liburuan. Hedabideek zein errelato eraikitzen dute indarkeria kasuen inguruan?

Zapalkuntzak rol bi bereizi ditu. Alde batetik, 'himpathy' kontzeptua dago: gizonenganako neurri bako sinpatia. Egiten dutena eginda ere, barru-barruan 'mutil onak' direla sinesten da. Bestetik, emakumeok, egiten digutena eginda ere, 'maltzurak' eta 'gezurtiak' gara. Orduan, ez daukagu sinesgarritasunik, eta gure berba zalantzan ipintzen dute. Mekanismo bi horiek gure aurkako indarkeria zuritzen dute.

“Ustezkokeriei” buruz ere idazten duzu. Sarritan ikusi zaitut zure Twitter kontuan ere “ustezko erasoak” ipintzen duten albisteak kritikatzeko. Emakumeen berba zalantzan ipintzen dute. Arlo honetan, zein ikerketa egin duzu? Emakumeok ‘gezurtiak’ garela sinesten dutenez, salatzen ditugun delituetan ere gezurretan gabiltzala aditzera ematen dute. Horretarako, ‘ustezko erasoak’ esamoldea erabiltzen dute. Biktimen salatua beharreko gainerako delituekin alderatu ditut eta ondorioztatu dut hedabideek albisteen bikoizteta erabiltzen dutela ‘ustez’ berba

Emakumeok ‘gezurtiak’ garela sinesten dutenez, salatzen ditugun delituetan ere gezurretan gabiltzala aditzera ematen dute

salatzailea andrazkoa bada. Aseguru-etxeak mugikor berria emateko, zaharra lapurtu egin digutela egiaztatzen eskatzen zuen, eta ha-

rezkero oso altua da salaketa faltsuen kopurua. Baina gizonetakoek lapurretaren bat salatzen dutenean, hedabideek ez dute ‘ustezko lapurreta’ esaten. Haien berba sinetsgarria da eta gurea ez. Gainera, eskubideak lortu ahala, gure aurkako erreakzioa bortitzagoa izan da. Ustezkokeriak biderkatu egin dira. Espainiako Genero Indarkeriaren aurkako Legea onartu zenetik!

Emakumeen aurkako indarkeria kasuen albisteak jada ez dira gertakarien atalekoak hedabideetan. Aurrerapausoak eman dira gaia lantzerakoan, baina oraindik ere lan handia dago egiteko? Hasteko, erasoaren zehaztasunek ez daukate zigorrean ezelango eraginik. Gainerako emakumeok sentitu dezakegun beldurra areagotu baino ez dute egiten. Zehaztasunak argitaratuz, emakumeen aurkako indarkerien beldurrezko errelatoa handitzen dute. Gainera, sexu-erasoak gertatuko zaizgun gauzarik txarrenea dela diote, inoiz gaudituko ez duguna, baina gertatuko zaiguna. Oso maltzurra da. Horretarako, ‘bortxaketa’ berbagaz tematzen dira, gerora markatuta utziko gaituen kontu batez.

Azaroak 25

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna

- Atera gure photocallean argazkia eskuan duzula emakumeen aurkako indarkeria matxista salatzen duen atzerki lili bat: erakutsi zure gaitzespena indarkeriari. *Parte hartzaileei atzerki lilak oparituak zaitzake
- 11:30-13:30 Ferialekun (Zelaia)
- 16:00-19:00 Trañabarren Hiribidean (Traña-Matienan)
- Manifestazioa Mugimendu Feministak deituta, **arratsaldetik 19:30ean, Matienan**. Abadiñoko Udalak dei egiten dizue parte hartzeko.

IKUSENTZUNEZKOEN LEHIAKETA

BELDUR BARIK JARRERA!

12 ETA 26 URTE ARTEKO GAZTEENTZAT (Euskadi mailan)

ANTZERKIA TEATRO

CON FAJAS Y A LO LOCO

AZAROAK 18 OSTEGUNA

19:00ETAN

ERROTA KULTUR ETXEAN

DOHAIAK Gazteentz

AbadiñoSex

Sexu eta genero informazio eta aholkularitza zerbitzua

Astelehenero, 17:00etatik 19:00etara Pino Lokalean

Gazteei zein eurekin harenan dauden pertsonen zuzendutako sexu eta genero informazio eta aholkularitza zerbitzua.

kontaktua

sexu aholkularitza@abadiño.eus

@abadiñosex

Emakumeen aurkako indarkeria emakumeen eta gizonen arteko botere-harreman desorekatuen eta emakumeen aurkako diskriminazioaren adierazpen bat da.

Ezinezbestakoa da emakumeentzako bizitza duina eta seguru izateko oinarriko eskubidea berreskuratzeko.

Abadiñoko Udalak dei egiten dizue abadiñar guztiei salatu dezazuen indarkeria matxista eta parte har dezazuen jardura hauetan:

Abadiño

Baina Espainiako Zigor Kodean ez dago 'bortxaketa' deliturik 1995etik! Sexu eraso da, indarkeriagaz lotzen duen kontzeptua delako, edo sexu abusua, drogatu bagaituzte edo beldurtuta geldirik geratu bagara. Zorua da: beste delituetan, kasu horretan, erasotzailearen jarrera gogorago zigortzen da; bere burua defendatu ezin duen pertsona hiltzea, adibidez, erailketa da eta ez istripuzko hilketa.

Kasu mediatiko bi lantzen dituzu. Horietariko bat 'Xaolin'-ena. Kasu honetan ere, errelato mediatikoan erasotzaileak dioenak duen pisua salatzen duzu.

Himpathy-ren adibidea da. Berak monje shaolina zela esan zuen eta hedabideek ez zuten adierazpen horrekiko ezelango distantziarik ipini: "monje shaolina dela dio" esatea nahikoa zen. Are larriagoa da atxilotuta zegoenean tumore bat zuela deklaratu zuela. Prentsak horren berri eman zuen, andre bi torturatu eta hil zituela zurrizko. Gaixo zegoela aditzera ematen zen. Bestela, ez zuela horrelakorik egingo, ze, azken batean, "gizon ona" zen.

Bigarrena 'La Manada'-ren kasua da. Erasotzaileen errelatoa desmuntatzen duzu.

Erasotzaileen errelatoa hedabideek eraiki dute. Prendaren adie-

razpenak egiazkotzat hartu zizuten: andrea ezagutu zuenean, Prendari esan zion lehenengo gauza "oso guapo zara" izan zela. Prendaren argazkia ikusi duen inork sinesgarritasunik emango lioke horri?

Liburuaren azalean Damasa Agirregabiria agertzen da, 1936ko Itziarreko jaietan, ehun kiloko harria altxatzen

Liburuan feminismoaz diharduzu, eta hainbat erreferentzia interesgarri eskaintzen duzu. Feminismoaren banalizazioaz diharduzu? Zergaitik eta zertarako banalizatzen da? Deslegitimatzeko? Askotan entzuten da: "Ni ez naiz ez matxista ez feminista, berdintasunaren aldekoa naiz. Feminismoaren banalizazioagaz lotuko zenuke hori? Feminismoa bera desitxuratu gura izan da?"

Osasunaren eta gaixotasunaren kontra ere ezin da egon, gaixotasun apur bat onartzen zabilatzalako. Feminismoaren banalizazioaren arriskuaz nabilenean, mugimendua barrutik desitxuratzearaz nabil. Feminismo pertsonalistak norberaren jarre-

rak kontu politikotzat hartzeko arriskua seinatu gura izan dut. Gainera, gure erreferentziak alboratu eta AEBetan sortu duten errelato *made in Hollywood* akritikoki onartu dugulako.

Maitasunaren injustiziaz ere berba egiten duzu. Maitasun erromantikoaz berba egiten duzu?

Emakumeok gure hartu-eman heterosexualetan daukagun sentimenduari 'maitasunaren injustizia' izena ipini zion Marcela Lagardek, gure bikotekideek baino ahalegin handiagoa egiten dugula sentitzen dugulako. Zapalduko beste talde batek ere ez daukan loturagaz bizi gara: maite dugun pertsonari gure zapalkuntza sozialak onurak ekartzen dizkio. Horregaitik, XIX. mendetik, anarkista eta sozialistak maitasun librearen alde borrokatu dira, errespetuan eta konpromisoan oinarrituriko hartu-emanen alde: egun batekoak, hileetakoak edo urteetakoak izanda ere. Gure egunerokotasuna libreagoa izan dadin. Hala ere, azken urteotan zabaldutako AEBetako errelatoaren arabera, orduan boto eskubidea zen garrantzitsua, 1848an Seneca Falls-en 62 emakume elkartu zirelako. Europako 1830 eta 1848ko iraultzetan, langileen aldarrietan gure hartu-emanen askatasuna ere defendatu zuten.

Liburuaren azaleko argazkiak badu bere istorioa. Azalduko zenuke?

Damasa Agirregabiria agertzen da, 1936ko Itziarreko jaietan, ehun kiloko harria altxatzen. Argazkian ikusten da deneriko andreak daudela: indartsuak ere bai. Gero, norberaren interpretazioak datoz. Nik ikusten dudana da andreak lasai asko ehun kilo altxatuta dauzkala eta gizona kilo gutxiago altxatu ezinik dabilela. Orduan, itxaroten gertatzen zaio Agirregabiria: 'benga!'. Euskal iruditeria da, gure errealitate. Liburuaren gure erreferentzietan oinarrituta dago, oso modu errazean idatzita, edonork irakurri eta ulertu ahal izateko.



Elorriko antolatutako mobilizazioa.

Azaroaren 25ean mobilizazioa antolatuko dute Elorriko plazan

ELORRIO • JONE GUENETXEA

Hainbat ekitaldi antolatu dituzte Elorriko. Neska gazteok zelan bizi dugu indarkeria matxista Elorriko? Entzun nahi gaituzu? goiburua solasaldi-gunea prestatuko dute Iturri kultur etxean, azaroaren 23an, 18:00etan. Parte-hartzaileek esperientziak partekatu eta indarkeria matxistari zelan aurre egin landuko dute.

Elorriko ikastetxeetan ere emakumeenganako indarkeriaren gaia landuko dute. Azaroaren 25ean, Elorriko Asanblada Feministak deituta mobilizazioa egingo dute, 19:00etan Herriko plazan.



Elorriko udala

Azaroaren 25a



Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna

Azaroak

23

asteartea

17:00

IPUINA:

"Emakumeak maite ez zituen herria"

Ipuin kontalaria: Maite Franko

Nori zuzenduta: Lehen Hezkuntzako 1. eta 4. mailen arteko umeei

Aforoa mugatua da eta umeentzat soilik, gurasorik gabe.

Aldez-aurretik erreserbatzea beharrezkoa da, liburutegira telefonoz edo emailaz kontaktatuz:

946 032 032 / liburutegia@elorrio.eus

Azaroak

23

asteartea

18:00

**ITURRI
KULTUR
ETXEAN**

NESKA GAZTEOK ZELAN BIZI DUGU INDARKERIA MATXISTA ELORRIO? ENTZUN NAHI DIGUZU?

Indarkeria matxistari dagokionez, jakin nahi duzu Elorriko neska gazteok zer bizi, aldarrikatu, borrokatu edo/eta konpartitzen dugun?

Bada, etorri solasaldi-gune honetara; izan ere, neska gazteok indarkeria matxistari buruzko iritzia, aldarrikapen, bizipen edo/eta esperientziak elkar trukatzeko ditugu. Helburua da elkarrekin pentsatzea Elorriko indarkeria matxistaren adierazpen guztiei zelan egin aurre eta zelan eragin, bakoitzak bere esparruan, bere tresnekin, bere estrategiekin eta eragite-markoan: hezkuntzan, politikan, jendartearen, instituzioetan, aisialdian...

Ekintza honetan parte hartu ahal izango dute emakumeek, gizonak, ez-bitarrek eta edozein adinetako pertsonak.

PARTAIIDEAK:

- Kattalin Garaizabal: Euskal Herriko Neska Gazteak
- Malen De la Fuente: Intxorta Aisialdi Taldea
- Miren Letona: Beldur Barik lehiaketarako bideo-egilea
- Nagore Iraola: Itxia, Emakumeen Antolakunde Sozialista
- Udane Mugerza: Elorriko Hezkidetzaren Programaren hezitzailea (Urtxintza Eskola)

Azaroak

25

osteguna

Elorriko Asanblada Feministak deituta...

MOBILIZAZIOA

Elorriko Indarkeria Matxistari EZ!

**Herriko plazan
19:00**

“Artean emakumeen aurka agertzen den indarkeria ia era natural batean onartu dugu”

Artean aditua den Garazi Arrizabalagak emakumeen aurkako indarkeriak artearen historian izan duen isla azalduko du, Berrizko Kultur Etxean azaroaren 30ean, 19:00etan

BERRIZ • JONE GUENETXEA

Zenbat bider joan ote gara museo batera koadro ezagunak ikustera! Baina gutxitan begiratzen diegu koadro horiei betaurreko moreak ipinita. Ariketa hori egingo du artean aditua eta Durangoko Museoko zuzendaria den Garazi Arrizabalagak. Adibide praktikoak ipiniko ditu artelan eza-gunetan agertzen diren emakumeen aurkako indarkeria aztertzeko.

Gutxitan entzun dugu zelan islatu den emakumeen aurkako indarkeria artearen historian. Zelan sortu da aukera hau?

Beti eduki dut gai hau buruan.

Orain dela gutxi, Prado Museoan, mitologiari buruzko erakusketa baten harira, kazetari batzuek koadroen ondoko txartelak nabarmendu zituzten. *Europaren bahiketa* eta horrelakoak. Bahiketa horren atzean, mitologiaren arabera, Zeusek bortxatu egiten du koadroko emakumea. Kazetariak zioten ea zergaitik ez zen koadroaren izenburua aldatzen, bertan agertzen zena argi azalaratzeko. Maitasun istorioa balitz legez agertzen da beti, baina errealitatea beste bat da. Ildo horretatik, azaroaren 25ean berbaldia emateko proposamena



egin zidatenean, oso interesgarria iruditu zitzaidan.

Adibideak ipiniko dituzu?

Bideo bategaz hasiko naiz. Ikusentzunezko horretan, jende askok ezagutzen dituen koadroak agertuko dira. Beti ikusi izan ditugu, baina horien atzean dagoen istorioa kontatuko dut. Bortxaketak, emakumea objektu lez agertzea... Hari horri tiraka azalduko dut zergaitik gertatu izan den hori. Bestalde, artistak koadro horiek sortzeko zein iturritan oinarritzen diren azalduko dut. Askok mitologian agertzen dira, Erdi Aroko idatzietan, biblian, literaturan... Adibide zehatzetan ere sartuko gara.

Kulturako beste esparru batzuetan, lan handia egin da jarrera sexistak identifikatzen eta kritikatzeko. Artean, oster, ez hainbeste.

Artean emakumeen aurka agertzen den indarkeria ia era natural batean onartu dugu. Artearen historia ikasten ibili nintzenean, ni neu ere ez nintzen konturatu indarkeria hori agertzen zela. Zeusen kasura bueltatuta, emakumea bahitu eta gero haregaz umeak izan eta zoriontsu bizi zela kontatzen da. Izenburuetan ere horrela agertu izan da. Mezu hori ez da beste begirada batetik ikusi. Istoria hori gozotu egin da, baina ez da horrela.

Badago indarkeria hori erakusten duen adibiderik gaur egungo arte lanetan? Arte garaikidean?

Badaude gaur egungo artisten lanak testu zaharretan oinarrituta daudenak. Gai horiek gaur egunera arte landu izan dira.

Museoetako arduradunei koadroetako txarteletan izenburua aldatzeko aukera ematea ere pauso bat izan daiteke

Badago emakumeen aurkako indarkeriak artean duen islaren inguruko lanketarik?

Askok dago lantzeko. Emakume artisten ikusezintasunaren gaia askoz ere landuago dago. Linda Nochlin arte feministaren aitzindaria izan zen eta mugimendu bat sortu zen. Baina ezingo nizuke gaur egungo erreferente bat ere aipatu. Beharbada egongo da baten bat, baina ez dut aurkitu. Argi dago artea gizonen esku egon dela orain arte. Izan ere, emakumeek, artista legez, beste ikuspuntu bat azaldu dute gai hauetan.

Zein izan daiteke berbaldiko hausnarketa nagusia?

Argi eta garbi, Antzinarotik gizarte patriarkal batean bizi izan garela. Antzinaroko iturri horiek gaur egunera arte erabili dira. Gure gizartea Greziako gizartean oinarritzen da. Eta Greziakoa oso patriarkala zen. Mendeetan zehar, era normal batean ikusi dugu gizona emakumeen gainetik egon behar zela. Normaltzat hartu izan da eta orain irakurketa hori berdintasunetik egin beharko genuke.

Artista gazteek betaurreko moreak ipintzeko modu bat da?

Bai, baina ez bakarrik artistek euren. Museoetako arduradunei koadroetako txarteletan izenburua aldatzeko aukera ematea ere pauso bat izan daiteke.

Egin izan da hori?

Bai, aldatu izan dira izenburuak, sasoi edo egoerara egokitzeko. Ikuspegi hori izatea beste pauso bat izan daiteke etorkizunerako.

Beraz, koadroei aldatu ahal zaie izena.

Ez da ohikoena, baina izan daiteke. Rembrandten kasua da eza-gunenetariko bat. *Gaueko erronda* deitzen den koadroa berez ez zen gauekoa. Baina bernizatu egin zuten eta ilunago geratu zenez, gauez dela ematen da. Autoreak ez zion koadroari izen hori ipini.

AZAROAK 25
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

23
GENEROA ETA ZAINTZA LANAK MENDEKOTASUNEAN: IKUSEZINA IKUSARAZTEA
Hitzaldia
19:00 Kultur Etxea

24
EMAKUMEEN PLAZERA
Dokumentala
18:30 Kultur Etxea

25
MARTXA + KONZENTRAZIOA
19:30 Udaletxetik Urtiaga Plazara

27
IPUINETATIK JABEKUNTZARANTZ
Ipuiin kontalaria
12:15 - Kultur Etxea
HOY PUEDE SER MI GRAN NOCHE
Antzerkia
19:00 - Kultur Etxea

22
AZAROAK 22 TIK ABENDUAK 5 ERA
ZER DA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA?
Erakusketa
Kultur Etxea

30
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA ARTEAREN HISTORIAN
Hitzaldia
19:00 - Kultur Etxea

6
berrizko

Aterki moreekin argazkiak aterako dituzte indarkeria matxista salatzen

Azaroaren 25agaz lotuta, hainbat ekitaldi antolatu dute Abadiñon. Photocall-a, antzezlan, Beldur Barik ekimena eta manifestazioa egingo dituzte, besteak beste

ABADIÑO • JONE GUENETXEA

Emakumeen aurkako indarkeria salatzen, photocall bat antolatu eta argazkia ateratzeko gonbita egin dute Abadiñon. Horretarako,

aterki moreak hartzen proposamena egin dute antolatzaileek.

Horrez gainera, Abadiñosex zerbitzua ere gogora ekarri dute.

Sexu eta genero informazioa eta aholkularitza zerbitzua astelehenero ematen dituzte, 17:00etatik 19:00etara, Pino lokalean. Gazteei zein eurekin hartu-emanetan dauden pertsonen zuzenduriko aholkularitza eskaintzen dute.

Beldur Barik ekimena

Abadiñoko Udalak Beldur Barik ikus-entzunezkoen lehiaketan parte hartzeraz deitu du. Lehiaketa honetan, 12tik 26 urtera arteko gazteek parte hartu dezakete. Hiru bat minutuko bideoak izaten dira. Lehiaketaren helburua da emakumeek jasaten dituzten bereizkeria-egoerei aurre egiten dieten neska-mutilen adierazpenak onartu, baloratu eta bultzatzea.

Beldur Barik sari banaketa (irabazleak soilik) azaroaren 26an egingo dute, Agurainen. Beldur Barik-en webgunean ikusteko aukera egongo da.



Abadiñon egindako mobilizazio baten argazkia.



Zornotzan egindako mobilizazio bat.

Elkarretaratzea eta manifestazioa Zornotzan

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Azaroaren 23an, Ainara G. Goitiandiaren *Cómeme la Flor* liburua aurkeztuko dute, udal liburutegian, 18:30ean. Bestalde, azaroaren 25ean elkarretaratzea eta erakunde adierazpenaren irakurketa egingo dute, 12:00etan, Herriko Plazan. Bestalde, arratsaldean mugimendu feministak manifestaziora deitu du. Erreferendum plaza-irtengo da manifestazioa, 18:30ean. 20:00etan, Sweet Mar-

got Trioren kontzertua izango da, Zelaian. Azaroaren 26rako, Gaztetxokoan *Zapi moreen tailerra A25* antolatu dute. 20:00etan, *Hiru Hitzetan* dantza ikuskizuna taularatuko dute, Zornotza Aretoan.

Abenduaren 1erako, hezkidetza guneko lehenengo berbaldia antolatu dute: *Nola hitz egin gure seme-alabekin sexualitateari buruz*. Abenduaren 3an, *Birritan bortxatua* antzezlan izango da, Zornotza Aretoan.

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIARI EZ

**azaroak
25**

AZAROAK 23
18:30etan Udal liburutegian
"Cómeme la Flor" liburua aurkeztuko du, Ainara G. Goitiandiak

AZAROAK 22-29
Herriko Plazan
Argi moreak udaletxe aurreko iturrian, indarkeria matxista gaitzesten dela gogorarazteko

AZAROAK 25
12:00etan Herriko Plazan
Elkarretaratze eta erakunde adierazpena irakurri

20:00etan Zelaian
Musika zuzenean Sweet Margot Triorekin

AZAROAK 26
18:30etan Gaztetxokoan
"Zapi moreen tailerra A25". Sexu aholkularitza zerbitzuak antolatuta

20:00etan Zornotza Aretoan
"Hiru Hitzetan" dantza ikuskizuna (Kultura Sailak antolatuta)

ABENDUAK 1
18:00 Zelaian
Hezkidetza guneko lehenengo hitzaldia: "Nola hitz egin gure seme-alabekin sexualitateari buruz"
Azaroaren 25era arte izena eman daiteke

ABENDUAK 3
20:00etan Zornotza Aretoan
"Birritan Bortxatua" antzezlan, Aldatzen laguntzen konpainiaren eskutik (euskaraz)

Informazio gehiagorako
berdintasuna@amorebieta.eus edo 946 300 190 zenbakira deitu.

amorebieta
ETXANO



***“Emakumeok sare sozialak
gehiago erabiltzen ditugu gure
emozioak kudeatzeko; gizonek
erabilera instrumentalagoa
egiten dute”***

Ziberindarkeria matxistari buruzko berbaldia emango du
Estibaliz Linaresek azaroaren 30ean Ibarretxen

rrak ikusterakoan, edo ligatzeko aplikazioetan, ez gara berdin sartzen. Hala ere, espazio digitalean badaude espazio matxistak eta ez seguruak.

Badago bigarren genero arrakalarik?

Teknologiaren enpresetan, eta teknologia ikasten dutenak gizonak dira batez ere, eta hor arrakala handi bat dugu. Garrantzitsua da arlo digitalean zein motatako desberdintasunak dauden aztertzea, landu egin behar ditugun gauzak dira eta.

Desberdintasun hau zelan islatzen da mundu digitalean?

Emakumeok sare sozialak gehiago erabiltzen ditugu gure emozioak edo erlazioak kudeatzeko. Gizonek askoz ere erabilera instrumentalagoa egiten dute. Hala ere, ikusten ari gara geroago eta mutil gehiago daudela TikToken eta horrelako espazioetan. Dantzatu egiten dira eta euren emozioak kontatzen dituzte. Baina, orokorrean, nerabeekin lan egin dudanean ikusi dut modu eta helburu desberdinekin erabiltzen dituztela.

Bideo-jokoan kasuan, mutilek gehiago erabiltzen dituzte?

Bideo-jokoetan zentratzen bagara, mutilek gehiago erabiltzen dituzte neskek baino. Gainera, mutilak bideo-jokoen inguruan erlazionatzen dira. Bertan kudeatzen dituzte erlazioak, eta baita bizitza ere. Topaketak egiten dituzte bideo-jokoekin lotuta.

Lehenengo genero arrakala gaituta dugu. Denok dugu sarbidea mundu digitalean, emakumeok eta gizonek. Baina ez-

Mutilek bideo-jokoen inguruan kudeatzen dituzte erlazioak, eta baita bizitza ere

berdina da zelan sartzen garen hainbat espaziotan. Gainera, emakumeok edukiak egiten ditugu, baita transformazioak ere. Gauzak aldatzen gabilta Interneten. Egoera oso anitza da. Game-

IURRETA

Emakumeenganako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna

AZAROAK 25



IURRETAKO HEZKUNTZA ESPARRUA

Maiztegi Herri Eskola, Juan Orobiogolitia Institutua eta Iurreta Lanbide Heziketan

GAZTEENTZAKO HITZALDI, TAILER ETA ERAKUSKETAK

- BERDINDU ZERBITZUA
- ESTIBILIZ LINARES "Mundu digitalean zaintzen ditugu gure buruak? Zer ikusi, zer eta nola erabili."
- JOSUNE MUÑOZ (SKOLASTIKA) "Herabe eta emakume gazteen aurkako indarkeriak telesaloetan"
- EMOKI ELKARTEA "Pornografiaren eragina sexualitatearen garapenean"

Azaroak 25-26-25

Erakusketa IBARRETXE KULTUR ETXEAN

INCOMPETENTES CONSCIENTES 

* Goizez ikasleentzako BISITA GIDATUAK

* Arratsaldeaz (Sarrera librea)

IBARRETXE KULTUR ETXEAN:

AZAROAK 25 NOVIEMBRE

- Eskola zentruetan ekintzak
Actividades en los centros escolares
- Pegatinak eta puntu moreen banaketa
Reperto de pegatinas y puntos lilas

18:30 Adierazpen Instituzionalaren Irakurketa
Lectura de la Declaración Institucional

Ondoren, Erakusketa Exposición

 **INCOMPETENTES CONSCIENTES**  **BISITA GIDATUA VISITA GUIADA**

IBARRETXE KULTUR ETXEAN:

AZAROAK 29

Sentsibilizazio saioa
18:00-20:00

EMAKUME MUSULMANAKI ETA ZANZERA, ESTEROTIPOAK HAUSTEKO BEGIRADA.

BILTZEN Servicio Vasco de Integración y Convivencia Intercultural.

AZAROAK 30

Hitzaldia Estibiliz Linaresekin
18:30-20:00

ZIBERINDARKERI MATXISTAK ETA HONEN AURKAKO ERRESISTENTZIAK ETA ESTRATEGIA ZIBERFEMINISTAK

- Familiei, hezitzaileei, gazteei eta publiko orokorrari zuzendutako saio prezintziala



* saioa ikusteko aukera abenduaren 12ra arte youtube-n.

ABENDUAK 4

Emakumeentzako formakuntza

10:30-13:30

AUTOESTIMA FEMINISTA. GURE BURUAREN JABE

Jabokuntza Eskola (Imagin elkartea)

IZENA EMATEKO
Ibarretxe Kultur etxea, H.A.Z/SAC-en edo e-mailaz: gizarite-ongizate@iurreta.eus
Telf: 94 621 53 72
Doakoa (aldez aurretik izena emanda)










IURRETA • JONE GUENETXEA

Deustuko Unibertsitateko Estibaliz Linares irakasleak mundu digitalean emakumeen eta gizonen artean dagoen arrakala aztertutako iurretako Udalaren youtube kanalaren bitartez, 'Ziberindarkeria matxistak eta honen aurkako erresistentziak eta estrategia ziberfeministak' berbaldia emango du. Azaroaren 30ean izango da, 18:30etik 20:00etara (abenduaren 12ra arte ikusi ahaliko da). Ibarretxe kultur etxean egingo den berbaldi presentziala familiei, hezitzaileei, gazteei eta publiko orokorrari zuzenduta egongo da.

Emakumeok zein espazio betetzen dugu mundu digitalean?

Espazio horretan, zein motatako edukiak ikusten dituzte?

Youtuberren kasuan, neskek modagaz eta edertasunagaz loturiko edukiak ikusten dituzte. Mutilek, oster, bideo-jokoekin loturiko youtuberrak.

Emakumeok espazio digitalean zein motatako indarkeria jasaten ari garen landuko dugu. Baina aukerei buruz ere berba egingo dugu

Bideo-jokoen inguruan ekosistema oso bat dago: youtube, twitch...?

Lehen, bideo-jokoetan jolasten zinen eta kito. Orain dena interkonektatuta dago: bideo-jokoak, gamerrak, youtube, twitch...

Bideo-jokorik masiboenei edo erabilienei dagokienez, gurasook askotan arduratuta egoten gara ea zein eredu transmititzen dituzten. Mutilen estereotipoetara bideratuta daude? Bideo-jokorik salduenak askotan eduki biolentoak dituzte, eta oso matxista eta sexistak dira. Bultzatzen den eredu ez da komenigarria. Hala ere, gure sasoian ere ikustekoa zen zein motatako pelikulak ikusten genituen. Orain ez dut uste gauzak okerrago dau-

denik. Egia da hausnarketa egin behar dugula seme-alabei erosten dizkiegun eduki moten inguruan. GTAn jokatzeko baduzu... norbaitek erosi egin dizu. Guk ere pentsatu behar dugu mota horretako edukiak erosi gura baditugu zergaitik erosten ditugun, eta hori azaldu.

Beraz, mutilak gamerretara enfokatzeko dira eta neskek ez dute euren burua hori islatuta ikusten. Neskak gehiago daude moda edo edertasuna lantzen. Horregaz, neska gazteei zein emakume eredu azaltzen zaie? Sareetan, emakumearen irudia hipersexualizatuta ikusten da. Ikustekoa da emakumeen gorputza zelakoa den bideo-jokoetan. Horrek min handia eragiten du.



Ziberjazarpenaren inguruan berba egingo duzu lurretan.

Bai, emakumeok espazio digitalean zein motatako indarkeria jasaten ari garen landuko dugu batez ere. Baina aukerei buruz ere berba egingo dut. Egia da indarkeria hori dagoela, eta batez ere garrantzitsua da izenak ipintzea. Baina aukerei buruz ere berba egin behar da; youtuberrek hainbat alternatiba ekarri dute, adibidez transexualitateari buruz. Lehen ez zegoen espaziorik hainbat gairi buruz berba egiteko. Interneten gertatzen ari denaz hezkuntza mailan ezin dugu distantzia hartu eta beste aldera begiratu. Eurekin berba egin behar da, eta, batez ere, alternatibak eman.

Dominikak manifestaziora deitu du azaroaren 25erako

Autoestima tailerra eta autodefentsa feminista tailerrak antolatu dituzte Zaldibarko liburutegi zaharrean

ZALDIBAR • J.G.

Dominika talde feministak mobilizazioa antolatu du azaroaren 25erako. Egun horretan, udaletxe-ko plazatik hasita, manifestazioa egingo dute, 19:00etan.

Bestalde, udalak tailer bi antolatu ditu. Azaroaren 22an eta 29an autoestimua lantzeko tailerra egingo dute. *Tener carácter* goiburua

izango du eta liburutegi zaharrean izango da. Azaroaren 24an eta abenduaren 1ean autodefentsa feminista tailerra egingo dute, 18:00etatik 20:00etara, liburutegi zaharrean. Adingabeentzako zaintza zerbitzua ipiniko dute, zapatublaiko lokaletan, 17:30etik 19:30era. Zerbitzua azaroaren 19a baino lehenago eskatu behar da.



Zaldibarko mugimendu feministak antolatutako mobilizazio bateko argazkia.

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO



EGUNA
A 25



AZAROAK 22-29



LIBURUTEGI ZAHARRA



18:00-20:00

AUTOESTIMA TAILERRA

"TENER CARÁCTER"

AZAROAK 24 • ABENDUAK 1



LIBURUTEGI ZAHARRA



18:00-20:00

**AUTODEFENSA
FEMINISTA TAILERRA**

EKARRI ZURE ESTERILLA!

**ZALDIBARKO UDALAK BAT EGITEN DU MUGIMENDU FEMINISTAK ETA EMAKUMEEN
ELKARTEK ANTOLATUTAKO EKITALDIEKIN**

***IZENA EMATEKO**



berdintasuna@zaldibar.eus



946 827 016

***ADINGABEENTZAKO ZAINZA ZERBITZUA EGONGO DA, AZAROAREN 19a BAINO LEHEN ESKATUZ GERO.**

-Zapatublaiko lokaletan: 17:30-20:30.

Durangoko kartzelan preso egon ziren emakumeak oroitzeko ekitaldia egingo dute Durangoko Bruno Maurizio Zabala kalean

Durango 1936 kultur elkarteak eta Andereak elkarteak azaroaren 27rako antolatu dute 'Agurrik gabeak' ekitaldia

DURANGO • JONE GUENETXEA

Gaur egun Nevers ikastetxea dagoen lekuan, emakumeen kartzela egon zen. 1939ko azarotik 1940ko abendura bitartean, Karidadeko (Ospitaleko) mojen zaintzapean, espetxea eduki zuten. Emakume haiek bertan bizitakoa isilarazia eta ahaztua izan da urte askoan. Azaroaren 25aren harira, Durango 1936 elkarteak eta Andereak elkarteak emakume haiek omen-duko dituzte. XV. Agurrik gabeak ekitaldia azaroaren 27an izango da, 12:30ean, Bruno Maurizio Zabala kalean, Nevers ikastetxe ondoan. Lore eskaintza egingo dute, Maria Gorosarriren berbak entzungo dira, soka-dantza dantzatuko dute eta Agurrik gabeak kantua abestuko dute.

Maria Gorosarririk orain dela hilabete batzuk kartzela honen inguruko berbaldia eman zuen San Agustin kultur gunean. Bere birramama kartzela horretan egon zen. Gorosarririk azaldu zuenez, kartzela horretan zeudenak "faxis-

moak politikoki errepresaliaturiko emakumeak ziren: Errepublikaren bizitza politikoan (mitinetan, manifestazioetan...) edo gerran parte hartu zuten emakumeak zeuden. Gainera, faxismoak delitu berri bi sartu zituen andrentzat: abortua eta proxenetaririk bako prostituzio autonomoa (proxenetismoa indarrean ipini zuen-eta, Errepublikak prostituzioa abolitu eta gero). Orduan, mota bi horietako presoak zeuden: politikoak eta sozialak". Bertan egondako emakumeen lekukotzek oso bizi-baldintza gogorrrak deskribatu zituzten. "Gizonek ez bezala, andrek ez zeukaten oherik, eta zoruan lo egin behar izaten zuten, pilatuta. Horrenbeste andra zegoen ze, espetxe esan beharrean "emakume biltegi" esaten ziotela eurek. Ziega ikasgelak ziren eta han 40-50 andra edukitzen zituzten. Egun osoan ez zuten ziegatik irteten, mezatara joateko ez bazen, edo *Cara al Sol* kantatzeko. Hortaz, dutxatzen ere ez zieten uzten", azaldu du Gorosarririk.



Durangoko emakumeen kartzelako argazkia. Gerediaga Elkartea.

Durangoko emakumeen kartzela 1939ko azarotik 1940ko abendura egon zen zabalik

Ascensión Badiola historialariak ere emakumeen kartzelen gaia aztertut du. Badiolak dioenez, "Durangoko eta Zornotzako emakumeen kartzelak bereziki gogorrrak izan ziren, zuzendaritzak ahaztuta eta utzita izan zituelako". Zornotzako kartzelaren kasuan, El Carmelo ikastetxea dagoen

eraikina izan zen emakumeen kartzela, 1939. eta 1947. urteen artean. Kasu honetan ere, datu gutxi ezagutzen da. "Saturraranekoak, Durangokoak eta Zornotzakoak kategoria bera izan zuten. 1939-1940. urteen artean sorturiko kartzelak izan ziren, emakumeen kartzela zentral lez".

AZAROAK 19

HITZALDIA: "ADINEKO EMAKUMEEN AURKAKO EGUNEROKO INDARKERIA. BEGIRUNE ETA ELKARTASUN HARREMANAK ERAIKITZEN."
HIZLARIAK: LOURDES RODRÍGUEZ LANDA - IPES
ORDUA: 17:00
LEKUA: DURANGOKO JUBILATUEN EGOITZAN.
PABLO PEDRO ASTARLOA KALEA 1 + 2
ANTOLATZAILEA: ONEKA ELKARTEA

AZAROAK 20

BIDEO-PROIEKZIOA: INDARKERIA MATXISTAK
ORDUA: 11:30
LEKUA: ANDRAGUNEA. LARIZ TORRE, 2
ANTOLATZAILEA: ITAIA - EMAKUMEON ANTOLAKUNDE SOZIALISTA

AZAROAK 24

DEKLARAZIO INSTITUZIONALA

AZAROAK 25

DAFA DURANGALDEKO AUTODEFENTSA FEMINISTA ASANBLADAK ANTOLATUTAKO EKINTZAK
INFORMAZIO GEHIAGO JASOTZEKO ADI DEIALDIEI ETA JARRAITU SARE SOZIALAK

AZAROAK 26

IPUIN MUSIKATUAK HELDUENTZAT. "EMAKUME ESKELETOAK". MAITE ARRESE ETA MAU ZIEMKIEWICZ.
ORDUA: 19:00
LEKUA: ERAILDAKO EMAKUMEAK OROITZEKO GUNEAN. AMBROSIO MEABE KALEA

AZAROAK 27

-DURANGOKO KARTZELAN PRESOKO EGON ZIREN EMAKUMEAK OROITZEKO EKITALDIA
ORDUA: 12:30
LEKUA: BRUNO MAURICIO ZABALA KALEA (NEVERS IKASTETXE ONDOAN)
ANTOLATZAILEA: DURANGO 1936 KULTUR ELKARTEA + ANDEREA ELKARTEA

-V. EMAKUMEEN LASTERKETA EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNAREN INGURUAN DURANGON EGITEN DEN LASTERKETA.
ORDUA: 16:30
LEKUA: EZKURDI PLAZA
INSKRIPZIOAK: WWW.KIROLPROBAK.COM
ANTOLATZAILEA: DURANGO MASTERS KIROL KLUBA

*SENTSIBILIZAZIO ETA BORTIZKERIA PREBENTZEKO TAILERRAK IKASTETXEETAN

ABENDUAK 10

HITZALDIA: "EXISTITZEN EZ DEN GURASOEN ALIENAZIO SINDROME: UMEEN ETA EMAKUMEON KONTRAKO TORTURA INSTITUZIONALA". IRUNE COSTUMERO
ORDUA: 19:00
LEKUA: ANDRAGUNEA. LARIZ TORRE, 2
ANTOLATZAILEA: ANDEREA ELKARTEA



AZAROAK 25, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

LEKUAN LEKUKO EGUTEGIA

Ohiko saltokietan salgai

2022

Durangaldeko egutegia

ABADIÑO	Petite Abadiñoko estankoa
ATXONDO	Kiosko Atxondo
BERRIZ	Egunon okindegia
DURANGO	Etxebarria prentsa denda Hitz Liburudenda Arkarazo taberna
ELORRIO	Ilargi prentsa denda
GARAI	Herriko taberna
IURRETA	Iurreta kopistegia
IZURTZA	Herriko taberna
MAÑARIA	U2 taberna
MALLABIA	Herriko taberna
OTXANDIO	Korostondo janari denda
ZALDIBAR	Imendia prentsa denda
ZORNOTZA	Ayerdi prentsa denda



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak



Gontzal Mendibil eta Durangoko Orfeoia

MUSIKA DURANGO :: Abenduaren 5ean, 19:00ean

Xeberri gogoratzeko kontzertua Andra Mari elizan

Gontzal Mendibil kantari zeanuriztarrak eta Durangoko Orfeoia emanaldi berezi bat eskainiko dute elkarregaz, Xabier Castillo 'Xeberri' zenaren omenez. Kontzertua abenduaren 5ean izango da, Durangoko Andra Mari elizan. Sarrerak salgai daude dagoeneko, Turismo Bulegoan (Kurutzesan-

tu). Bakoitza 10 euroan. Guztira, 450 bat lagunentzako lekua egongo da. Emanaldi berezia izango da, Orfeoia eta Mendibil ez dira eta sekula ere elkarregaz taula-ratu orain arte. Kanta ezagunak, herrikoia eta San Juan Gurutze-koaren poemak interpretatuko dituzte.

Azaroaren 19an

BERRIZ antzerkia

'Perez sagutxo' (Glu Glu konpainia), 17:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

ELORRIO musika

Aldapeko Basque Latin Jazz, 20:00etan, Arriola antzokian.

IURRETA ipuinak

'Hitzak josten' ipuin kontaketa saioa (Mireia Delgado), 17:00etan, Ibarretxe kultur etxean (3-5 urteko umeak). Bigarren saioa 17:45ean (6 urtetik gorakoak).

IURRETA musika

Estitxu, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean. *Ixilik daude harriak* diskoa aurkeztuko du.

ZORNOTZA musika

Supercremalleras, 20:30ean, Zelaieta zentroan.

Azaroaren 20an

ABADIÑO antzerkia

'La gran mentira' (LaTEAdeTro) 19:00etan, Errota kultur etxean.

ATXONDO ipunak

Amaia Egidazu ipuin kontalaria, 19:00etan, Arrazolako Amillena Bentan. **Erroneria: Erruki**, 21:00etan.

BERRIZ dantza

'ECLAT' (Adriana Bilbao) 19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO musika

'Tribute to Francois Guin' (Swing Bones Tronboi Jazz), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

ELORRIO musika

Greg Izor Quartet, 20:00etan, Arriola antzokian.

IURRETA kirola

VI. Lasterketa Familiarra, 11:00etan, Askondon irtenda. **Errifa eta pintxo solidarioa** La Otra Mirada elkarreagaz.

ZORNOTZA antzerkia

'Tarzan' (Mar Mar Teatro), 18:00etan, Zornotza Aretoan.

Azaroaren 21ean

ABADIÑO antzerkia

'Érase que se era...' (LaTEAdeTro) 12:00etan, Errota kultur etxean.

DURANGO musika

'Hái, ametsetako arrantzalea' (Cia Giramagic), 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

Azaroaren 22an

ABADIÑO berbaldia

'Gure seme-alabei euskararen erabilerarekin laguntzeko erronka', 17:30ean, Errota kultur etxean. Hizlaria Iñaki Eizmendi gizarte laguntzailea.

ATXONDO dokumentala

'Abiadura Handiko Txikizioa', 18:30ean, gaztetxean. AHTaren Aurkako Aste Aktiboa.

Azaroaren 23an

IURRETA dokumentala

'Abiadura Handiko Txikizioa', 18:30ean, Gaztetxean. AHTaren Aurkako Aste Aktiboa.

Azaroaren 24an

DURANGO berbaldia

'Euskaraz bizitzeko euskararen errepublika', 19:00etan, Hizkuntza Eskolan. Hizlariak: Estitxu Garai (EHuko irakaslea), Asisko Urmeneta (Irudigile ARTibista) eta Urko Aierbe (EHEko kidea). Aurkezlea: Karolina Suarez kazetaria.

DURANGO berbaldia

'Diru-sarrerak bermatzeko sistemaren errealitatea eta erronkak Euskadin', 18:00etan, Elkartegian. Hizlaria: Alfonso Lopez Martinez.

ELORRIO berbaldia

'Abiadura Handiko Trena: Ez-eraginkorra, injustua eta jasanezina' berbaldia, 19:00etan, Arriola antzokian. AHTaren Aurkako Aste Aktiboa.

ZALDIBAR dokumentala

'Abiadura Handiko Txikizioa', 18:30ean, Gaztetxean. AHTaren Aurkako Aste Aktiboa.

Azaroaren 25ean

ZORNOTZA musika

Sweet Margot Trio, 20:00etan, Zelaieta Zentroan.

Zinema

:: Berriz

KULTUR ETXEA

• **Pan de limón con semillas de amapola**
barikua 19: 19:00
domeka 21: 19:00
• **Emakumeen plazera**
eguztana 24: 18:30

:: Durango ZUGAZA

• **Última noche en el Soho**
barikua 19: 19:30/22:00
zapateria 20: 17:00/19:30/22:00
domeka 21: 17:00/19:30
astelehena 22: 18:00/20:15
martitzena 23: 18:00/20:15
eguztana 24: 18:00/20:15

• **Antlers. Criatura oscura**
barikua 19: 19:30/22:00
zapateria 20: 17:00/19:30/22:00
domeka 21: 17:00/19:30
astelehena 22: 18:00/20:15
martitzena 23: 18:00/20:15
eguztana 24: 18:00/20:15

• **Spencer**
barikua 19: 19:30/22:00
zapateria 20: 19:30/22:00
domeka 21: 19:30
astelehena 22: 18:00/20:15
martitzena 23: 18:00/20:15
eguztana 24: 18:00/20:15

• **El lobo y el león**
zapateria 20: 17:00
domeka 21: 17:00

• **Norma (opera)**
eguztana 25: 19:30

• **Love of lesbian (kontzertuaren proiektzioa)**
eguztana 25: 20:00

:: Elorrio ARRIOLA

• **Maixel**
domeka 21: 20:00
astelehena 22: 20:00
• **Calamity**
domeka 21: 17:00

:: Zornotza ARETOA

• **Paperezko hegoak**
barikua 19: 20:00
• **Way Down**
domeka 21: 20:00
astelehena 22: 20:15
• **Destello Bravío**
martitzena 23: 20:15
• **Oltxiak**
domeka 21: 17:00



Gremioen gida

 **Zurgintza**

leike aroztegia &
diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

 **Iturgintza**

**UNAI
GARAY**
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalataile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

 **Iturgintza**

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

 **Iturgintza**


Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

 **Iturgintza**

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com

Zubiaurre, 8 IURRETA
946 202 768

Arzubio 10 B. Industriaidea, 13-14 pabiloak ABADIÑO
944 071 791 - 692 852 779

 **Zurgintza**

ATERPE AROZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

 **Dekorazioa**

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industriaidea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**



“Ganoraz ezin zela aurkeztu ikusita, diskoa noiz kaleratuko zain egon gara”

Worth it taldeak 'Conviction' hirugarren lan luzea kaleratu du; Bartzelonan grabatu zuten, 2020ko neguan

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Ohiko kontzertuak bueltan direla dirudien garaian, Worth it taldeak 'Conviction' hirugarren lana kaleratu du. Beraz, data aproposak dira Odei Arrizabalagak, Ander Olabarriagak, Bikendi Fernandezek eta Sergio Devesak osatzen duten taldea berriro ere oholtzara bueltatzeko. Hirugarren lan honen grabazioa 2020ko azaro eta abendua bitartean egin zuten, Txosse Ruizegaz, honek Cerdanyola del Vallésen [Herrialde Katalanak] duen Wheel Sound estudioan; masterizazioa Ultramarinosen Victor Garciak egin du.

Zer aldarrikatzen duzue 'Conviction' diskoan?

Urte biro diskoa kaleratu ohi dugu. Abestiekin hasi eta 2020ko prest edukiko gurela uste genuen, eta estudioa ekainerako erreserbatu genuen. Baina denok dakigu zer gertatu zen martxo hartan (barrez). Horrez gainera, taldekide aldaketak ere izan ditugu; Tarranek taldea utzita, laukote modura jarraitzea erabaki genuen; baterian, Sergiok ordezkatu du Aretxaga. Ganoraz aurkezteko aukerarik egongo ez zela ikusita, diskoa noiz kaleratuko zain egon gara orain arte. Baina urtea amaitu aurretik kaleratu behar genuela ikusi genuen.

Zelan moldatu da Sergio taldera?

Sergio zaldibartarra da, gu baino dezente gazteagoa, baina ezagutzen genuen aurretik, eta estiloa gaitik ere aproposena zela iruditu zitzaigun. Oso eroso egon gara beragaz, lehenengo entsegutik. Ekarpen handia egin du, gainera,

eta behar genuen bultzada hori ere eman digu, gauza berriak probatzeko.

Ez da erraza hirugarren disko bat kaleratzea, are gutxiago garaiotan. Letrak horren ingurukoak ere badira?

Aurrera egiteko momentua dela uste dugu. Azken urteotan, pentsatu dugun baino gauza gehiago egin dugu, baina uste dugu pauso bat gehiago ere eman dezakegula. Eta, horretarako, konbikzioa behar genuen, sinestea. Ibilbidean zehar emandako urratsak norabide horretan joan dira, eta, orain, momentua da ekiteko.

Sergiok ekarpen handia egin du eta behar genuen bultzada hori ere eman digu

Zelan joan zen grabazioa?

Guretzat garrantzitsua zen pauso bat harago ematen ahalegintzea. Diskoaren soinua bereziki zaindu gura genuen, eta, horretarako, uste genuen garrantzitsua zela disko berri hau zelan eta nogaz grabatu ondo erabakitzea. Aurrekoak lagun profesionalekin egin genituen, baina oraingoan teknikaria gugaz uneoro egotea gura genuen. Bagenituen proposamen batzuk, tartean Wheel Sound Studioko Txosse Ruizena, eta bera aukeratu genuen; hasieratik ondo konpondu ginen. Guretzat aurrerapauso bat zen, astebetetz estudio-etxean egon ginen diskoan buru-belarri, estudiotik irten barik. Tontakeria

bat ematen du, baina oso garrantzitsua da egun osoa diskoari eskaintzea. Eta Ruizek ere asko lagundu zigun.

Kolaborazioei dagokienez, behin Bartzelonara joanda bertako lagun eta musikariek parte hartzea gura genuen. Askok gustatzen zaigu Jarquek zelan abesten duen, eta egin genuen abestietariko bat beretzat proposa zela iruditu zitzaigun. Gabi Edgek ere piloa lagundu digu, hasieratik. Hara joan garen guztietan berak eraman gaitu, eta

beragaz detaile bat eduki gura genuen. Ikaragarri lagundu digu eta bere ahotsa diskoan egotea gura genuen.

Worth it taldearen indarguneetariko bat zuzenekoak dira.

Ahalik eta gehien jo gura dugu. Ia urte biko geldialdia egingo dugu azkenean; maiatzean eta ekainean kontzertu pare bat eskaini genituen, baina ez ziren baldintzarik onenak izan, COVIDaren eragina arintzeko neurriengaitik. Oso pozik gaude diskoagaz, eta egundoko gogoia dugu zuzenean aurkezteko.

Hemendik ahalik eta gehien jotzea da asmoa, baina kanpora begira jarri eta estatuan zein Europan jotzea ere gustatuko litzaiguke. Abenduaren 10ean izango dugu lehenengo kontzertua diskoa kaleratu gurenetik. Fourscore taldearen itzuleran joko dugu. Beste data batzuk ere baditugu lotuta, baina oraindik ezin dugu ezer aurreratu, oso gogotsu gaudela bakarrik. Uste dugu gauza desberdin bat egin dugula, indartsua, eta orain kontzertuetan erakustea tokatzen da.



Smurfit Kappa
Central forestal

+50 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAITZEN

Smurfit Kappa
Nervión

Durangoko Mar-Mar teatrok bere ibilbideko lehenengo antzezlanaren 'Tarzan' estreinatuko du zapatu honetan, Zornotza aretoan

Eleberrietako pertsonaia ezagunaren interpretazio propio bat proposatzen dute adin guztietako jendeari bideraturiko obra berrian



Mar-Mar teatro konpainiako kideak.

ANTZEZLANA • JOSEBA DERTEANO

Hirian kaosa da nagusi. Norbaitek zooko kaiolak zabaldu ditu eta lehoiek, panterek eta gainerako animaliek kaleak hartu dituzte. Nork zabaldu ditu kaiolak? Susmargarri nagusia poliziako psikologoarengana eraman dute eta izena galdetzean... "Tarzan" erantzun du. Horixe da Mar-Mar teatrok bihar 18:00etan Zornotza aretoan estreinatuko duen *Tarzan* antzezlanaren abiapuntua. Ondorengo terapia pertsonaiaren barnebidaia bat izango da, umezarora, gaztarora eta bere bizitza harrigarria. Pertsonaiaren iraganean arakatuko dute, egin duenari zentzu bat eman guran.

Biharkoa estreinaldi bikoitza izango da. Mar-Mar teatrok lehenengoz aurkeztuko du jendaurrean bere ibilbideko lehenengo obra. Irailetik, goiz eta arratsalde entseatzeko dabilta eta eszenatokira igotzeko "desiratzen" daudela adierazi du Igor Iglesiasek, antzezlaneko ekoizle eta soinu arduradun durangarrak. "Obra lantzean sentitu dugun ilusio hori ikusleekin partekatzeko gogoa dugu", gehitu du.

Adin guztietakoek gozatzeko antzezlanaren da. "Umorea, drama apur bat, abentura asko... denerik egotea gura genuen eta ordubetean bidaia itzela proposatzen du obrak", azaldu du Iglesiasek.

Lanketa kolaboratiboa

Konpainiaren lehenengo proiektuak Edgar Rice Burroughs idazlearen eleberrietako pertsonaia ezagunaren bizitzako interpretazio propioa kontatzen du eta lanketa kolaboratibo bati eskerrak ondu dute. Jose Carlos García eta Kide Díaz de Rada portugaldarrak dira obraren zuzendaria eta gidoilaria, hurrenez hurren. Aspaldiko hartu-eman dute Garciagaz, eta uztailan Portugalera joan ziren proiektua lantzerako. "Zeretik hasi ginen. Zer eta zelan kontatu, orduan erabaki genuen, inprobisazioen bitartez sarritan. Berdin gidoiagaz. Ez genuen gura beste batek sorturikoa guk egokitzea. Hasieratik gure sorkuntza izatea gura genuen", gogoratu du.

Hainbat emanaldi

Zornotzakoaz gainera, Durangaldean beste emanaldi bi dituzte lotuta oraingoz: abenduaren 3an Berrizen, eta abenduaren 19an Durangon. Antzezlanaren euskaraz nahiz gaztelaniaz landu dute. Zornotzakoak euskaraz izango dira; gaztelaniazko estreinaldia Santurtzin egingo dute, domekan.

Gorakada antzerki taldean ibilitako kide batzuek sorturiko proiektu berria da Mar-Mar teatro. Durangaldeko hainbat kide dabil bertan.

Gai librean

Udazkenak

Udazkena beti heltzen da bat-batean. Bat kontatu orduko aurrean dago eta inguratu zaitu, galdera edo harridura ikurrean. Udazkena, uda azkena. Bat-batean heldu zait aurten (ere) udazkena. Konturatu orduko, hostoak orbela dira, eguzkia joan egin da eta udatik baino negutik gehiago dute egun hauek. Hotz naiz eta hotz dago kanpoan. Euria ari du barru zein kanpoan.

Urtero errepikatzen dut hurrengo urtean adi egongo naizela, prest aurkituko nauela urtaro berriak. Eginbeharrekoak eginda eta gorputza epelduta. Joan zen urtean ere errepikatu nituen ataza-mantra horiek, baina aurten ere udazkena bat-batean heldu da nigana. Udazken bihurtu naiz bat-batean.

Baina zer du udazkenak? Badirudi udazkenak ispilu egiten digula, eta goibelago erakutsi gure irudia, pentsatzen



Eider Chaves
Gallastegui
Irakaslea

genuena baino goibelagoa. Badirudi udazkenak biluziago gauden sentsazioa ematen digula. Eta jakin badakigu ispilura begiratzeko prest egon behar dela bat, ispiluak ez duela beti nahi edo irudikatu duguna islatzen. Ispiluak, batzuetan, gordintasunez bidaltzen duela informazioa, gorputza iltzatzen duen dardo zorrotz bat bez.

Baina zer du udazkenak? Badirudi udazkenak ispilu egiten digula

Eta agian horregatik ez zaigu udazkena gustatzen, biluztasuna, bulnerabilitatea, goibeltasuna... eta hitz "zatar" horiek guztiak bueltatzen dizkigulako. Gure baitan existitzen direla gogorarazten digulako.

Uda alaiagoa da, hobe, etengabe kanpora bidaltzen gaituelako; estimulu etengabeen kontsumoan ez dugulako zertan barrura begiratu, eguzkiak, egun luzeak eta soinu rinbonbanteek ez digutelako treguarik ematen, gelditzeko, eta jada existitzen diren goibeltasun eta antzekoak entzuteko. Nahiz eta udazkena ordurako dei galduak egiten hasi den. Eta horrela opor osteko depresioak, horrela irailaren maldizioa. Horrela udaren heriotza. Eta horrela, udazkenaren bat-batekotasuna eta nolabaiteko biolentzia.

Udazkena gara orain, gau geroz eta luzeagoak, lur hezea, ur hotza. Udazkena gara eta udazkenak gordetzeko aukera ematen digu, manta azpian, gaztain artean, txokolate edo salda beroan, besoartean.

Gordintasunez etorri da udazkena, gordina delako barnea, gordina delako bizitza, eta gordina gordintasuna bera.



**Zutoia Odriozola
Urkiza**

Mendi lasterketak

ELORRIO | 1988

Eta, gerora, atletismora bueltatu beharrean mendi lasterketetan hasi zinen. Zergatik?

Ez daukat arrazoi zehatzik, baina ez nuen neure burua berriro atletismoan ikusten, besterik barik. Neure kabuz korrika egiten hasi nintzen eta denbora bat neramanean lasterketa bat probatzea erabaki nuen. Nire estreinaldia Sorginen Lasterketan izan zen, 2013 inguruan. Asko gustatu zitzaidan eta jarraitzea erabaki nuen. Urte batzuetan neure kabuz aritu nintzen, talderik barik. Urte batzuetan gehiagotan aritzen nintzen, eta beste batzuetan ez hainbeste. Entrenamenduetan eta horrelakoetan sekula ere ez naiz oso zorrotza izan neure buruagaz. Niretzat zaletasun bat da.

Zelan batu zinen Indarpak taldera?

Nire neba Indarpak taldean dabil eta berak animatu ninduen. Eta oso pozik nabil, giro bikaina dago. Nire senarra ere, Gorka Iraeta, taldean dago. Triatloiak-eta egiten ditu, eta sarritan beragaz entrenatzen naiz.

Triatloia lartxo izango da agian, baina pentsatu duzu duatloia probatzea?

Pentsatu dut, baina orainoz ez naiz animatu. Bizikletan ibiltzen naiz, ez korrika beste, baina ibiltzen naiz.

Eroso sentitzen zaren maratoi erdiak baztertu barik, distantzia luzeagoak probatzea pentsatu duzu?

Beti eman gura izan dut urratsa ultretara eta noizbait Hiru Haundiak proba ere egin gura nuke. Buruan darabildan proba da. Baina, horretarako, gehiago entrenatu beharko nuke, mentalki hobeto prestatu... Ikusiko dugu.

"Betia eman gura izan dut urratsa ultretara, eta noizbait Hiru Haundiak proba egin gura nuke"

Parte hartu duen azkenengo mendi lasterketa bietan podiumera igo da Zutoia Odriozola; joan zen asteburuan, Urduñako proba irabazi zuen.

MENDI LASTERKETAK • J.DERTEANO

Zutoia Odriozolaren ibilbidea ikusita, distantzia labur-laburretik luzeagoetarako garapena ikusi daiteke. Atletismoan zebilenean abiadura lasterkaria zen; batez ere, 200 metroko proban lehiatzen zen. Gerora, atletismoa utzi eta mendiko maratoi erdietan aurkitu du gusturen dabilen distantzia. Etorkizunera begira, ostera, ultra distantziak probatzea gustatuko litzaioke.

Urduñakoa asko sufritu osteko garai-pena izan ei zen.

Horrela da, bai. Azken egunotan ez naiz larregi entrenatu. Bane-kien 33 kilometroko proba, eta desnibel horretakoa [1.750 metro], gogorra egingo zitzaidala. Eta horrela izan zen. Hogeigarren kilometroraino oso ondo joan nintzen, baina azkenengo hamahiru kilometroetan asko sufritu nuen muskularki, eta baita orkatilen-gaitik ere. Izan ere, orain aste bi zaintiratu bat izan nuen Aramotz mendi lasterketan. Errekuperatuta nengoela uste nuen, baina ez. Denerik gertatu zitzaidan.

Zorionez, makalaldia heldu zenerako alde polita zeneraman bigarrenarekiko.

Bai, bakarrik nindoan eta alde hori nahikoa izan zen.

Hasieran topean irteten duzun horietarikoa zara?

Normalean, aurrean irtetea gustatzen zait, aurrekoekin erreferentzia bat izateko, baina Urduñako lasterketan ez neukan estrategia zehatzik. Horrelaxe irten zitzaidan.

Aramotzeko lasterketa aipatu duzu lehenago. Emakumeetan, Oihane Unzalu durangarrak irabazi zuen. Zelan joan zitzaizun lasterketa?

Oso ondo. Hirugarren amaitu nuen. Orkatila bihurritu nuela kenduta, egindako lanagaz gustura geratu nintzen.

Beraz, parte hartu duzun azkenengo lasterketa bietan podiumera igo zara. Lehenengoz horrelako bolada ona?


Lehenengoz ez, baina ez zait askotan gertatu eta pozik nago, bai.

Mendi lasterketetan hasi aurretik, atletismoan ibili zinen. Distantzia luzeetan aritzen zinen?

Ba, ez, justu kontrakoa. Esango dudanak gezurra dirudi, baina abiadura-lasterkaria nintzen: 100 eta 200 metroko probetan ibiltzen nintzen, batez ere 200ekoetan. Unibertsitatean hasi nintzenean, ezin nuen denagaz eta atletismoa uztea erabaki nuen. Bidezabal taldean ibili nintzen eta horren aurretik Lauaxeta ikastolan.

33 kilometroko proba zela eta desnibel hori zuela jakinda, banekien gogorra egingo zitzaidala, eta horrela izan zen

Gezurra dirudi, baina hasieran 100 eta 200 metroko probetan ibiltzen nintzen, batez ere 200ekoetan



Zutoia Odriozola Urduñako mendi lasterketako helmugan.

Unai Atutxa elorriarra eta Lander Hernandez berriztarra Eiser Hirumet taldeagaz arituko dira

Eskualdeko txirrindularitza taldeak hainbat aurpegi berrigaz ekin dio denboraldiari; horrez gainera, horniketa krisiaren ondorioz bizikletak aldatu behar izan dituzte eta Berria makarko Belador 10 modelokoekin irtengo dute aurten errepidera

TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO

25 urtez azpiko Eiser Hirumet txirrindularitza taldeak denboraldi berriari ekin dio Urkiolan egindako kontzentrazioagaz. 19 ziklistek osatzen dute aurtengo taldea: iaztik jarraitzen duten zazpik, harrobitik igo dituzten bostek eta beste taldeetatik fitxaturiko seik.

Durungaldeko txirrindulari bi daude taldean, eta estreinaldia da bientzat. Unai Atutxa elorriarra Duranguesa taldean ibilitakoa da aurretik. Gero, urtebete inguruan, lehiatu barik egon zen, eta iaz independente modura bueltatu zen. Aurten, Eiser Hirumetara batzeko aukera eskaini diote. Lander Hernandez berriztar gaztea Duranguesa klubeko La Tostadora taldeetik igo dute. "Iaz egindako lanaren eta hobetzeko egindako ahaleginaren saria da", adierazi du Duranguesa-ko zuzendaria den Josu Atxotegik.

Harrobiko txirrindulari gazteekin jarraituz, Punta Galeako (Getxo) Loiumat taldeko Oier Muñiz, Eder Moreno, Ander Arizpe eta Eneko Apodaka ere igo dituzte.

Sei fitxaketa ere badaude aurtengo taldean. Esaterako, Gerard Bofill eta Adria Bartrin katalanak. Biak taldearen maila igoko duten txirrindulariak dira. Esaterako,



Eiser Hirumet taldeko 19 txirrindulariak Otxandioko Hontza Extreme abentura parkean, aurtengo kontzentrazioaren barruko ekimen batean.

Bartrinek 14. postuan amaitua du Balentziagaren Oroimenezko lasterketa, estatuko afizionatuen mailan dagoen probarik garrantzitsuenetarikoa. Adam Bent eta Ben Houlihan ingelesak dira beste aurpegi berri bi. Bentek zazpigarren amaitu du Bizkaiko Itzulia eta Houlihanek 11. tokian. "Hauek biak

ere maila handiko txirrindulariak dira", esan dute taldeko arduradunek. Ander Ormazabalek eta Ander Ganzabalek osatzen dute fitxaketen zerrenda. Hauekin guztiekin eta iaztik jarraitzen dutenekin Eiser Hirumetek "inoizko talderik onena" du, Atxotegiren ustez. Aurtengoa seigarren denboraldia dute.

Bizikleta aldaketa

Lau urtean, Ridley bizikletak erabili dituzte, baina hornidura krisia dela-eta bizikletak falta zaizkie. Ondorioz, marka berria aurkitu behar izan dute. Aurten, Albaceteko Berria markako Belador 10 modeloko bizikletak erabiliko dituzte. Abenduan helduko dira bizikleta berriak.



Gisasola Euskadiko txapelagaz, Mungian.

Gisasolak bigarren urtez jarraian irabazi du Euskadiko ingude jasotze txapelketa

HERRI KIROLAK • J.D.

Karmele Gisasola 'Zelai III.'-ak sasoi betean dagoela erakutsi du asteburuan, eta txapel bi gehitu dizkio apurka-apurka hazten dabilen palmaresari. Joan zen zapatuan, herri kirolen Euskadiko hainbat txapelketa lehiatu zen Mungian; tartean, ingude-jasotzearena, eta zazpi finalisten artean mallabitarrek egin zuen lanik onena. Horrela, bigarren urtez jarraian irabazi du txapela espezialitate horretan. Iaz, ordura arteko errekorra hobetu zuen, 97 altxaldigaz; aurten, ez da marka horretara heldu —95 jasoaldi egin ditu—, baina egindako lanagaz "oso pozik" dagoela adierazi du.

Biharamunean, atsedean hartzeko ia astirik barik, Bizkaiko harri-jasotze txapelketa irabazi zuen, Gamiz-Fikan. 24 jasoaldi eman zizkion 75 kiloko harri kubikoari, eta 24 jasoaldi 63 kiloko bolari.

Jokaldia

Emakumeen kontrako indarkeriari ez

Gustatuko litzaidake azaroaren 25aren harira emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako lasterketarik egin behar ez izatea, baina badakit asko falta dela horretarako. Penagarria iruditzen zait gaur egungo gizartean oraindik telebista piztu eta entzuten diren berriak entzutea. Edo kirolariok hainbat momentutan neska izateagatik gutxiago garela sentitu behar izatea. Horregatik, nik argi daukat: emakumeen lasterketak beharrezkoak dira. Entzun gaitzaten, emakumeok batu gaitzen.

Baina garrantzitsua da, baita ere, egunero, neska zein mutil izan, gure inguruan emakumeen aurkako indarkeriarik eman ez dadin gure esku dagoen guztia egitea. Kontziente izatea. Imajinatu dezagun momentu batez,



June Arbo Sarriugarte
Korrikalaria

"Hurrengo astean hainbat herritan izango diren emakumeen lasterketetan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztet"

"Iaz 300 emakumek baino gehiagok parte hartu zuten Durangon; saia gaitzeen zifra hori baino gehiago izaten"

lasterketa hauek erreibindikazio bat izan ordez, ospakizun bat izatera iritsiko balira. Eta gure ondorengoak azaroaren 25ero, pozik, korrika egitera aterako balira. Badakit zaila egiten dela horrela pentsatzea eta egoera

horretan jartzea, baina gogoratu nahi nuke guztion hondar aleei esker osatu dezakegula planeta justuago bat. Horregatik, hurrengo astean hainbat herritan izango diren emakumeen lasterketetan parte hartzera animatu nahi zaituztet, adibidez azaroaren 27an Durangoko emakumeen lasterketan.

Iaz 300 emakume baino gehiago izan ziren Durangoko emakumeen lasterketan partu hartu zutenak. Saia gaitzeen aurten zifra hori baino gehiago izan daitezen. Gainera, Durangon, erreibindikaziora batu nahi duten guztiek (gizonezkoek barne), baina korrika egin nahi ez dutenek, badute beraien aukera ere, aurretik izango den ibilbide ez lehiakorrean parte hartuz. Ibilbide horiek aproposak dira denentzat.

Azaroaren 25ean, eta beti: emakumeen aurkako indarkeriari ez!

DURANGALDE



Arribi jauregiko eguzki erlojuak

Durangoko Santa Ana plazan badira eguzkitara begira ipinitako neba-arreba bikotx bi. Arribi jauregiko eguzki erlojuak dira, Alde Zaharreko gertakizunen lekukoak. XX. mende hasieran ipini zituztenetik bertan daude, lasaitasunaren talaian, kaleetako joan-etorri estresagarriarekiko arrotz.

KO TXOKOAK ?



Otxandioko Artekalea

Artekaleko etxe bakoitza bata besteari pegatuta dago, elkarri laguntzeko eta elkarri goxotasuna eskaintzeko batu diren lagunak lez. Horrelakoa delako Otxandio. Durangaldeko azken txokoetariko bat, erdi gordeta dagoena, baina bertara ailegatzen diren bisitari eta herritar berriak goxo eta besoak zabalik hartzen dituen.



// AUKERA

MATIENA: Pisu altua. 3 logela, komuna eta sukalde handia. Igogailua. Ganbara. **C.E.E=G 114.000 €**

J.M. ALTUNA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. **C.E.E=G 199.500 €**

ZALDIBAR: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. Berriztatua. C.E.E=E Alokairuan, erosteko aukeragaz. **500€ / 99.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. C.E.E=G Aparkaleku pribatua. **85.000 €**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, komuna eta sukaldea. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea aukeran. **C.E.E=G 173.000 €**

ZALDIBAR: Erdialdean. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Berriztatua. Jantzia. Igogailua. **C.E.E=F 140.000 €**

TXALETA: Familiabakarrekua. 305 m². 3 solairu. 4 logela eta 3 komun. Lorategia. **C.E.E=F 525.000 €**

ABADIÑO: Zeletabe. 4 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 2 terraza. **C.E.E 180.000** negoziagarria.

MATIENA: San Prudentzio. 101 m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Eguzkitsua. **C.E.E=E 178.000 €**

ZALDIBAR: 95 m². 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza. Garajea. **C.E.E=F 206.000 €**

SAN AGUSTINALDE: 103 m². BERRIZTATUA. 3 logela, komuna eta egongela. Terraza.

IURRETA: Santa Maña. 3 logela, komunak, egongela eta sukaldea. 15 m²-ko trastelekua. Parking pribatua. **C.E.E=F 160.000 €**

DURANGO: Berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. **C.E.E: F 130.000 €**

IURRETA: Bixente Kapanaga. 92 m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. **C.E.E=G 205.000 €**

SANTA ANA: 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Berogailua. Lehiu berriak. Ganbara. **C.E.E=E 125.000 €**

ZALDIBAR: Euskal Herria. 2 logela, 2 komun sukaldea eta egongela. Terraza. Garaje itxia. **C.E.E=E 198.000 €**

MATIENA: Erezena. 3 logela, komuna, sukalde-egongela eta despentsa. Terraza. Ganbara. Igogailua. **C.E.E=E 155.500 €**

IURRETA: DANTZARI. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. **C.E.E= F 140.000 €**

MADALENA: 132 m². 4 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. 2 ganbara. Garajea eta bodega-trastelekua. **C.E.E=F 286.000 €**

EZKURDI: 175 m². 5 logela, 3 komun, sukalde handia eta egongela. Ganbara. Garajea aukeran. **C.E.E=F 325.000 €**

KURUTZIAGA: 80 m². 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. **C.E.E=G 179.500 €**

MATIENA: 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta despentsa. Terraza. Igogailua. C.E.E:F **149.000 €**

BERRIZ: 74 m². 3 logela, komuna duxagaz, sukaldea eta egongela. Terraza. Igogailua. C.E.E=F ALOKAIRUAN, EROSTOKO AUKEKAGAZ. **110.000 €**

BERRIZ: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Argitsua. Berriztatua. **C.E.E=E 130.000 €**

MAÑARIA: Etxebizitzak eta atikoak. Estreinatzeko. **125.000 €**

ABADIÑO: 1.000 m²-ko lursaila, eraikitzeko baimenagaz. **250.000 €**

GARAI: Baserria. 237 m². 15.624 m²-ko lursaila. **C.E.E=G**

IZURTZA: Baserria. 324 m²-ko eta 134 m²-ko bi etxebizitzatan banatuak. 3 solairutan banatuak. **C.E.E=E 640.000 €**

//LOKALAK ETA GARAJEAK SALGAI

MADALENA: 60 m². Alokairuan. 1.200 €

SAN INAZIO: GARAJE ITXIA. **16.000 €**

TRONPERRI: 60 m². Etxebizitza egiteko aukera. **64.000 €**

ARTEKALEA: Lokala. Alokairuan / Salgai. **550 € / 120.000 €**

F.J. ZUMARRAGA: Alokairuan / salgai. 80 m². Izkina bi kaletan. Dena da erakusleihoa. Oso komertziala.

F.J. ZUMARRAGA: AUKERA. 114 m². SALMENTA **175.000 €**

ASK.ETORBIDEA: Garaje itxia. **24.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Aramotz auzunea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Prezio ezin hobea.

DURANGO: Pablo Pedro Astarloa. Pisu berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea jantokiagaz eta egongela.

DURANGO: Antso Estegiz. 3 logela, 2 komun, sukalde-jangela eta egongela. Ganbara.

MAÑARIA

KIRIKIÑO KALEA: 3 logela, komuna eta sukaldea. Balkoia. Igogailua. Argitsua.

ABADIÑO

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ

ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatze. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatze. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatze. Kokapen izugarria

ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarrizko baserria salgai. 40.000 m²-ko lur saila. Berriztatze.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatze. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzeko.

//BULEGOAK ALOKAIRUAN

ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA

ALOKAIRUAN

BERRIZ: Eitua industrialdea. 800 m²-ko pabilioia. Aldagelak, komuna eta ofizinekin.

MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



Botikak	
BARIKUA, 19 · 09:00-09:00	09:00-22:00
MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00	DOMEKA, 21 · 09:00-09:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	GAZTELUMENDI J.A.Abasolo 2 - DURANGO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA	GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	09:00-22:00
ZAPATUA, 20 · 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	ASTELEHENA, 22 · 09:00-09:00
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
09:00-13:30	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
GAZTELUMENDI J.A.Abasolo 2 - DURANGO	09:00-22:00
SARRIA Sasikoa 17, DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	MARTITZENA, 23 · 09:00-09:00
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	SARRIA Sasikoa 17, DURANGO
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO	09:00-22:00
FARMAZIA MATIENA Trañabarren 15. - ABADIÑO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	

Eskelak



Agurtzane Jaio Albizu

Berria iritsi da, txori txioetan, betiko joan zarela diñoen honetan.

Presente zagoz gure dantza pausotan, Txarroako landetan, eta ur hotzetan.

Betiko joan zarela diñoen honetan... bizi-bizirik zagoz gure bihotzetan.

Zure dantza-lagunak




Agurtzane Jaio Albizu

Agurtzane erakutsi dozu, lagun on bat zer dan, orain joan zarenean hutsune bat da guregan.

Ixil-ixilik, umil-umil txori txiki baten eran haizearekin batera libre egin zazu hegan

Zure lagunak






Jon Iturriaga Urizar

Zenbat kilometroko bizipenak ote doaz zuek!

Zure familia



Zorion Agurrak



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.**

Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.



Zorionak patata tortillen erregia! Espero dogu super ondo pasau izena zure egunien! Mosu haundi bat ta besarkada pillo bat, guapisimo! Amz!



Dagoeneko 4 urtetxu egin dauz etxeko erreginek. Etxeko eta familia guztixen partez zorionak eta muxu potolo-potolo bat!



Zorionak, **Izadi**, polita, zure zazpigarren urtebetetzean. Egun zoragarri bat izan.



Gure **Sofia** maiteak beste urte bat egingo du. Musu handi bat bihotz-bihotzez familiaren partez. Askio maite zaitugu, bihotza.



Zorionak, **Eneko**! Apur bat berandu baina seguru, esaten dan moduen. Besarkada bat Garaiko lagun partez!!



Azaroaren 20an **Unai Matíasek** bere lehen urtea egingo du. Zorionak Carmen eta Yosuren partez.

Eguraldia		
ZAPATUA 🌧️ 17° / 2° ☁️	ASTELEHENA 🌧️ 14° / 7° ☁️	EGUAZTENA 🌧️ 8° / 6° ☁️
DOMEKA 🌧️ 17° / 2° ☁️	MARTITZENA 🌧️ 9° / 6° ☁️	EGUENA 🌧️ 9° / 6° ☁️

hitz

liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak



MIÑAN
Amets Arzallus & Ibrahima Balde (Susa)



NOLA GORDE ERRAUTSA KOLKOAN
Miren Agur Meabe (Susa)



AITAREN ETXEA
Karmele Jaio (Elkar)



OIHAN HITZEAN MUNDUA
Ursula K. Le Guin (Igela)



ASTERIX ETA GRIFOA
Jean-Yves Ferri & Didier Conrad (Salvat)

“Mendiagaz loturiko artxiboek sortu didate interesik gehien”

Jon Arzubia Mañariari buruzko artxiboak arakatzen hasi zen orain urte bi. Bildutako informazioa herrikideei azalduko die inguruko auzo eta baserriak ezagutzeko ibilaldietan



**Jon Arzubia
Etxanobe**

**Mañariako toponimia
jasotzen dabil**

MAÑARIA 1982

MAÑARIA • AITZIBER BASAURI

Herriko historia eta ondarea berreskuratze modua da bertoko toponimia jasotzea. Hala uste du Jon Arzubiak, eta Mañariako toponimia jaso guran antzinako artxiboetan murgilduta dabil. Bizkaiko Foru Aldundiko artxibo digitalizatuekin hasi da. "Toki bakoitzak bere izena du eta asko galtzeaz daude. Neurri batean, normala da. Bizi garen garaian bizi gara, baina pena da", dio mañariarrak. Makina bat informazio eta bitxikeria jaso du eta herritarrekin partekatzeak aukera du orain, Andra Mari Aisialdi eta Kultura elkartearen gonbita onartu eta gero. Urrian egin zuten lehen ibilaldia, eta domekan Aldebaraieta auzoan ibiliko dira.

Zelako harrera dute auzoetatik antolatuturiko ibilaldiek?

Ona. Batzuegan interes handia sortu da eta egin dituzte euren ekarpenak. Benetan eskertzekoa da. Aukera hori ematea oso positiboa da. Geroago eta jende gehiago animatu da eta ekarpen eta bizipen gehiago ezagutzeko aukera izango dugu. **Toponimia izan duzu helburu, baina askotariko informazioa topatu duzu.** Herriko toponimia batzeko helburuagaz ekin nion beharrari. Leku guztiek dute euren izena eta nik ez nituen ezagutzen. Gero, mendien kudeaketari buruzko agiriak ere topatu nituen, aipamen toponimiko zuzenik egin ez arren datu berri bat

topatzeko beste norabide bat eman didatenak. Mañariari eta Izurtzari buruzko artxiboak irakurri ditut,

Artxibo asko dut irakurtzeko, lan asko dut egiteko. Ez dut presarik. Gogoz nago eta joango naiz denak irakurtzen

antzina biek batera kudeatzen zituztelako herri-basoak; gero, lur horien heren bat Izurtzari egokitu zitzaion, eta beste biak Mañariari. Aldundian

Mañariari buruzko 2.600 agiri daude, eta 167 bat digitalizatuta daude. Distantzia luzeko lasterketa da, artxibo asko dut irakurtzeko, lan asko dut egiteko. Ez dut presarik. Gogoz nago eta joango naiz denak irakurtzen, interesa sortzen didatenak behintzat. Mendiagaz loturikoek sortu didate interesik gehien.

Bitxikeria edo pasarterik topatu duzu?

Bai, Mañariak ez zeukala herriarena zen lurrik oraintsu arte; uztailen lau hektarea erosi zituen. Lehenengo karlistadatik dator hori. Gerra ordaintzeko, herritarrek dirua ipini behar izan zuten eta udala zorpetu egin zen. Zor hori kitatzeko, udalak herriko lurrak eman zizkien herritarrei. Baina lur-jabeei baino ez. Errentariak, adibidez, ez zuten ezer jaso. Batzuentzat lapurreta izan zen; beste batzuentzat, egin zitekeen bidezkoena. 1927an sinatu zituzten eskriturak. Eliza handitu egin gura izan zutela ere irakurri dut.

Lehenengo karlistadan, herritarrek dirua ipini behar izan zuten gerra ordaintzeko, eta udala zorpetuta geratu zen

Noiz izan zen hori?

1950ean, elizari atxikituta dorre bat eta eraikin bat altxatu gura izan zituen udalak, eskola eta udal-etxea hara eramateko. Elizaren atzeko horma bota egin zuten horretarako, baina obra ia amaituta zegoela, teilatua ere ipinita, eraikina jausi egin zen. Elizako atzealdean agerian geratu zen denbora luzez. Zaindari bi egoten ziren elizako objektu baliodunak inork ez lapurtzeko. Gero, zurezko horma bat altxatu zuten. Herritarrek ere kexu ziren, hotza sartzen zelako.

Mañariako baserrien zerrenda osatu duzue udalagaz, desagertuta dauden baserriak ere bat-uta.

Bai. 6-7 baserri daude desagertuta. Arrueta auzoan zegoen Mugaburu baserria ere lokalizatu dugu artxiboak arakatuta. Inork ere ez zuen horren akordurik. Domekan, jaustear den Axpe baserria ikusiko dugu.

Lauhortza

Martin Loizate
Sarriandia
Ikaslea



Laster arte, Lenin!

Inoiz baino sorkuntza artistiko gehiago eta diferenteagoa dugu eskura, baina esango nuke gero eta aniztasun gutxiago dagoela kontsumitzen dugun horretan. Modu berean, sare sozialen joera da norbere gustu antzekoenak dituztenez inguratzea. Lehen filtroa norberak ezartzen bazuen, orain gero eta plataforma eta bilatzaile gehiagok gure partez erabakitzen dute zer erakutsi eta zer ez, noren lagun eginarazi eta norena ez, oparitu dizkiegun datu pertsonaletan oinarrituz.

Gero eta plataforma eta bilatzaile gehiagok gure partez erabakitzen dute zer erakutsi eta zer ez

Horrela, *Good bye, Lenin!* filmeko emakumea bezala bizi gara, algoritmoak egunero begien aurrean jartzen dizkigularik gure ideia eta gustuetara egokitzen diren albiste, iruzkin eta gertakariak, esanaz bezala desio genukeen mundu hori dela errealitatea, gure sinesmenak erreproduzituko dituzten burbuila iragazkiak sortuz. Eroso baiakude norbere burbuilaren isolamendu ideologiko eta kulturalen.

Ez ditugu egunkariak informatzeko irakurtzen, norbere pentsaieran berresteko baizik. Eztabaidaren kotizazioak beherranzko joera du zorionaren burtsa honetan, ez hala matrakarenak.

Eta munduan egoteko modu honek azaldu dezake hein batean zergatik dagoen geroz eta jende gehiago martzianoen zain, birusaren, genero zapalkuntzaren eta aldaketa klimatikoaren existentzia ukatzen edo, Berlingo harresia erori ez bailitzan, iragan den mundu batean iltzaturik.

DURANGO KABILDUOSTE



Proiektu berria San Roke auzoan, erdigunetik pauso batera.

Informazioa

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa

946 46 20 41
www.sukia.com